

Jai jendetsuak Lazkaon



**Gazta eguna
Idiazabalen**

**Aralarko larreen
irekiera
Larraitzen**

**Euskal Kantu
Txapelketako
finalaurrekoa
Beasainen**

Giokela, Okel Garbia Muturretik Buztanera

LUIS MARI Harategia
Kale Nagusia, 15
IDIAZABAL

Giokela, Berme Osoko Okela



Ez guk, Certicar-ek ziurtatua

Giokela



Aprobetxa ezazu uda hizkuntzak ikasteko



nick's
ENGLISH CENTRE

25 urte
zuen artean!

Nick Knight

J.M. Barandiaran, 1

☎ 943160051 - 686320515

E-mail: nick.ec@euskalnet.net

ORDIZIA

➤ Ingalaterran egonaldia

➤ Urtean zehar maila guztientzako klaseak, haur, gazte eta helduentzat

➤ Kontsultatu inongo konpromezurik gabe



DO'S HIZKUNTZAK

2002.eko UDA

☀ Ingelera eta frantsesa

☀ Udako ikastaro trinkoak Beasainen: ordu t'erdi edo 4 ordukoak (2 aste edo 4 aste)

☀ CCI ordezkari

Ikastaroak atzerrian: Ingalaterra, Irlanda, Frantzia, Alemania, USA, Kanada

Lan praktikak: Ostalaritza, Au-Pair

☀ Cambridgeko Unibertsitate eta Frantziako Aliantza azterketetarako prestakuntza

☀ Talde txiki eta berdina adinen arabera

☀ MULTIMEDIA sistema (aukeran): azkeneko teknologia zure esku, ordutegirik gabe, zuk aukeratzeko duzu.

☀ Laguntza pertsonalizatua

ZATOK ETA APROBETXATU UDA

Nafarroa Etorb. 1, 'Etxe Ubi' BEASAIN

☎ 943 880 346 Faxes: 943 161 746

E-mail: dosidio@adegi.es

interlang

International Language Services



Ingeles eta aleman ikastaro trinkoak udarako



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorik



Itzulpen gintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak



Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familia



Lan esperientzia atzerrian: Irakasle goa eta begiraleak U.S.A.-n: ostalaritza eta abar

J.M. Iturrioz, 9 - 1.

☎ 943 16 05 72

BEASAIN


p-21 - 1. solairua

☎ 943 88 11 37

ORDIZIA



The Clover School of Languages



Uztaila lan garaia jakinduria da saria, zator lagunduko dizugu, denon artean lortuko dugu, zurea da aukera frantsesa edo ingelera.

(H.E.O. eta abendurako Cambridgeko azterketak ere prestatzen ditugu)

Domingo Unanue Plaza, 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Pako Zubeldia, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Patxi Telleria eta Aitor Diaz de Espada.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako

Kultura Sailak,

Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK

diruz lagundutako

aldizkaria



Enirio-Aralar mankomunitatearen eskutik Maiatzak 1: Aralarko larreak irekitzeko festa Larraitzen

Negua kalean pasatuta eta mendiari atsedena emanda, ganadua berriz ere mendi aldera eramateko garaia iritsi da aurten ere. Aralarko larreak, ofizialki, maiatzaren 1ean irekiko ditu Enirio-Aralar mankomunitateak. Trashumantziaren aitzakian, festa eguna antolatu izan du azken urteetan Larraitzen, maiatzaren 1ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailaren laguntzarekin.

Egitaraua

Abere erakusketak, eskulangintza erakustaldiak, bertako produktuen salmenta... denetarik izango da Larraitzen, maiatzaren 1ean.

Abereetan, Aralarko artaldeak, behiak, pottokak, astoak, ahariak, ikusgai izango dira. Behorren markatzea eta abereen peraketak ikusteko aukera ere izango da.

Eskulangintzari dagokionean, ohiko tresnen erakusketaz gain, saskigileak, pilotagileak gaztagileak, abarka egileak, artile egileak eta pastagileak izango dira.

Bertako produktuetan, azkenik, hainbat produktu izango da salgai: ardi eta ahuntz gazta, produktu ekologikoak, taloa eta txorizoa, sagardoa, orein produktuak, eztiak, sendabelarrak, Aralarko liburu eta mapak... Gainerako ekitaldien egitaraua jarraian duzue:

10:00etatik aurrera, Sarako gaiteroak.

11:00etan: Aloña eta Amaiares kantal-dia.

Eguerdian: Aralarko larreak irekitzeko etxafuegoa.

Ondoren: Astigarragako Antton eta Imanolen arteko lehia. Begiristain eta Gorostidi bertsolariak. Joanito Mendizabal txiste kontalaria. Abeslariak eta gaiteroak.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Biloreko langileak greban

Apirilaren 22an hasi eta bost eguneko lanuztea egingo dute Zaldibiako Biloreko langileek, enpresak 28 langile kaleratu dituela salatzeke. CCOO sindikatuak jakitera eman duenez, apirilaren 12an jakinarazi zuen Biloreko zuzendaritzak, 28 langile kaleratzeko asmoa, "inolako arrazoi garbirik eman gabe". CCOOk gaineratu duenez, "enpresak arrazoi objektiboak aipatzen ditu kaleratze horiek egiteko baina arrazoi horiek ez ditu zehaztu". Sindikatuaren esanetan, "garbiketa sindikala egin nahi izan dute, kaleratutako 28 langileetatik 24 CCOOk afiliatuak baitziren".

Luhns-ekin negoziaketan

Biloretik beste albiste bat ere badator. Maiatzean, ziuurren, Alemaniako Luhns taldearen kontrolpean geldituko da Bilore, %51a erosteko negoziaketetan ari baitira, 5 milioi eurotan.



Plan estrategiko berria egiteko eskatu dio Batasunak Goiekiri

Goierriko Batasunak, Goierriko plan estrategiko berria egiteko deia luzatu dio Goiekiri, Goierriko garapen agentziari, oraingo plan estrategikoa zaharkiturik dagoela-eta. Eskualdeko erakunde ezberdinen artean bakoitza bere lanean, ia elkar loturarik gabe ari direla uste du Batasunak, partehartzea, Goimenen kasuan izan ezik, "mailan gorenetan politikoa soilik izanik".

Joxe Mari Otegi Itsasondoko alkateak, Axular Barandiaran Goierriko Batasunako kideak, Orotitz Etxabe Zaldibiako alkateordeak, Jose Joakin Zubeldia Zaldibiako alkateak eta Luis Mari Telleria Segurako alkateak eman zuten prentsaurrea apirilaren 10ean, "Goierri benetako eskualde orekatua bilakatu dezagun" plan estrategiko berri horrek zer hartu beharko lukeen kontuan azalduz. "Hiru sektoreak hartu behar ditu kontuan, elkar osagarri gerta daitezten. Orain arte, industria eta zerbitzuen sektoreak landu dira gehienbat". Horrekin batera, "gestio maila modu askoz irekiagoan planteatu, indar sozialak parte hartuz eta modu honetara monopolio politikoa alderatu". Eskualdearen oreka ere aldarrikatzen du Batasunak, "herri txikiaren biziraupena ziurtatzeko eta bide batez eskualde buruen zentralizazioa gero eta nabarmenagoa ekiditeko". Eskualdearen zerbitzu ezberdinen optimiazazioa bilatzea ere beharrezkoa ikusten du Batasunak, garraioan, eskolan, zerbitzuetan, zabor bilketa, osasungintzan...

"Goitik behera datozkigun planak aztertu eta Goierriko komuni zaizkionak hartzea" ere garrantzitsua ikusten du Batasunak. Azkenik, "arazo gordinenak era amankomunean tratatzea eta irtenbideak topatzea. Adibidez, etxebizitza", gaineratu du Batasunak.



Aceraliako LABek planteatu egin du, 2002ko Lan Egutegia eskatuz

Apirilaren 9an, goizean, Olaberriako eta Bergarako Aceraliako LAB sindikatuak planteatu egin zuen, 2002. urterako lanerako egutegiak ez dizkietela ematen salatuz. LABetik jakinarazi digutenez, egun berean, arratsaldean bertan, eman zien langileei eskatzen zuten 2002. urteko lan egutegia.

JOXI iturgintza
Jose Inazio Etxeberria Amuabarra

GASA - BEROGAILUAK

☎ 943 884 387 Ibarguren baserria
☎ 676 178 488 ZALDIBIA

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Loinazko San Martinen irudi berria jarriko dute beasaindarrek Igaratzan

Jabier Arrietak egin du zurezko irudia

Apirilaren 28an, beasaindarrek, Loinazko San Martinen irudi berria jarriko dute Igaratzako ermitan, Aizkorri Mendi Elkartearen eskutik. Festa eguna antolatu dute ekimen honen aitzakian. Jabier Arrieta zegamarrak egin du, santuaren taila lana.

Beasaingo Jose Manuel Etxebeste eta Anttoni Azurmendi senar-emazteek, Igaratzako ermitako Loinazko San Martinen irudiaren egoera txarraz jabeturik, Beasaingo udal-txean beraien kezka azaldu zuten. Beasaingo Udalak, egoera horri aurre egin nahi izan zion, eta San Martinen irudiaren lana, Zegamako Jabier Arrieta eskultorearen eskutan jarri zuen. Arrietak bete du lana eta prest du apirilaren 28an Igaratzan jartzeko.

Santua Igaratzara prozesioan eramango dute. Aizkorri elkartekoek prest dute San



Jabier Arrietak, Igaratzan jarriko duen santuaren irudia duzue argazkian. Egurrean egindako lana da. Oraindik bukatu gabe zeukan argazkia ateratzerakoan, margotzea falta baizitzaion. Iganderako prest eduki du Arrietak.

Prudentzio egunerako egitaraua. Mendi ibilaldia, prozesioa, meza eta festa izango da Igaratzan bertan.

● **Mendi irteera:** goizeko 8etan irtengo da mendizale-elkartetik, eta Lizarrusti-Igaratza mendi-ibilaldia egingo da.

● **Prozesioa:** goizeko 8etan

irtengo da mendizale-elkartetik, eta Pagomari-Igaratza prozesioa egingo da.

● **11:00etan:** meza.

● **Ondoren:** Irudiaren inaugurazio festa: hamaiketako (salda eta txorizo egosia); txistulariak; dantzariak; bertsolariak; trikitilariak eta abar.

Fernando Morillok

Martxoaren 22an aurkeztu zuen Fernando Morillo azpeitiarrak 'Ortzadarra sutan' liburua. Beasaingo Udalak, Elkarlanean argitaletxearekin eta CAF enpresarekin elkarlanean antolatutako Igartza Sariko emaitza da. Morillok, helduentzako lehen eleberria kale-ratu du.

Bizitzaren eskolari eta esanahiari buruzko eleberria da. Bi hari, bi garai. Eleberriko protagonistak, 18 urteko lau neska eta lau mutil dira. Jakin-minaren irrika, sexu-jolasen saltsak, pozak, desilusioak... biltzen dira. 15 urtera, telefono dei bitxi batek berriro elkartuko ditu. Jakina, ez dira orduko berak. Mikrohistoriaz osatua dago liburua. Morillok aurkezpenean adierazi zuenez, "lapurra" izan da bere istorioak idaztean, han eta hemen, kuxkuxean, jendeari entzundako istorioak moldatu baititu.

V. Igartza Literatur Sorkuntzako Beka


Oinarriak kalean dira eta uztailaren 1era bitartean aurkeztu daitezke lanak Beasaingo Udaletxean.



Euskara-plana duten enpresak Goierriin elkartu ziren, egun-pasa

Martxoaren 23an, Euskara-plana duten Batz, Maier, JMA, Elay taldea, Danona, Labein, Irizar, Orkli, Ampo eta Elhuyar enpresetako 83 langile, Goierriin elkartu ziren. Egun-pasa egin zuten: Idiazabal, Segura eta Zerain bisitatu zituzten. Zeraingo sagardotegian bazkaldu zuten, trikitilariak lagun. Iaz Hernanin egin zuten bilkura eta aurreko Ampo-Poyamek egin dituen anfitrioi lanak.

Euskara-planak, enpresetan, lan munduan, euskararen erabilerrari bultzada emateko planak dira. Enpresetako langileak lanean euskara idatzia nahiz ahozkoa gehiago erabili dadin gogotik ari dira lanean, bakoitzaren enpresako eguneroko jardunean.



Aizu, Mikel naiz

Atzegik, Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak, kanpaina berria jarri du martxan, 'Aizu, Mikel naiz' lelopean. Gizartea sentsibilizatu eta gizarteari bere mentalidade aldaketa beharrezkoa dela ikustaraztea du helburu kanpainak.

'Aizu, ni Mikel naiz' mezuak zera esan nahi du Atzegiren esanetan: "guztiok pertsona bezala tratatuak izan gaitzen behar baitugu eta ez kolektibo baten partaide. Norbaitek gure izenarekin deitzen gaituenean, gizartean parte hartzeko aukera ematen digu", eta hau da Atzegiren aurtengo aldarrikapena.

Goierriren turismo sustapenerako bideoa aurkeztu da

Apirilaren 12an, Goiturrek, hiru proiektu berri aurkeztu zituen Idiazabalen, guztiak ere, Goierriko turismoaren sustapenerako. Goierriko bideoa, bono turistikoa eta eskualdeko nekazalturismoen foileto berria izan ziren aurkeztutako produktuak.

Bideoa

13 minutuko bideoan, CD rom formatoan, Goierriko errekurtsoak laburbiltzen dira. Goierriko produktu turistikoak, alojamenduak, gastronomia, azokak, tradizioa eta ohiturak, turismo aktiboa, Goierriko 18 herrien argazkiak, eta abar biltzen dira.

Bideoa Estatuko telebista autonomo guztietan pantailaratu da. Turismo azoketan, hemendik aurrera Euskadiko standean telebista izango dela aprobetxatuz, bideoaren birtatez erakarri nahi dira turistak. Goierriara. www.goierri.org web orrialdean eskuragai egongo da.



Goiturreko eta Goierriko udaletako alkate eta zinegotziekin batera, Jon Mikel Murua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazala eta Ingurugiro diputatua eta Koro Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordea izan ziren.

Arg.: Juantxo Unanua

Bonoa

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, 4 eurogatik Goierriko produktu turistikoak biltzen dituen bonoa ere aurkeztu zen Idiazabalen. Zegamako artisautza tailerra, Zerain Parke Kulturala, Segurako Ardixarra jauregia, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoa, Beasaingo Igartza jauregia eta Lizarrustiko parkeak ikusgai daude, beharpenarekin.

Landetxeen foiletoa

Goimen Elkartearekin elkarlanean, landa guneetan dauden alojamenduak biltzen dituen foileto berria kalean da, alojamendu mota hau delako kanpotik datorren turistak eskatzen duena eta bezero potentzial bati luzatu nahi diote: enpresa munduari.

Datozen egunetan Bartzeleonan guztia eskuragai izango da, bertako turismo azokan, apirilaren 21era bitartean.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Ordiziako Euskararen Aholku Batzordeak antolaturik, 'Ordiziako euskera jaso eta ikertzeko beka'

Ordiziako Euskararen Aholku batzordeak, Ordiziako hizkuntza aldaeraren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz kezkatutik, 'Ordiziako euskera jaso eta aztertze beka' sortu du. Ordiziako hizkera galtzearen arriskua ikusirik, deialdia Ordiziako euskararen ikerketa linguistiko globala egiteko izango da. 6.000 euroko beka da, eta maiatzaren 31 arte dago lanak aurkezteko epea.

Bekaren ezaugarriak

Bekaren helburua Ordiziako euskararen ikerketa linguistiko globala egitea izanik, honako arlo hauek jaso behar ditu gutxienez:

- Ordiziako euskararen 'corpusa', ahozko euskara, jaso beharko da, Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.
- Aditza, deklinabidea, lexikoa, fonetika eta esaera zaharrek ere jaso beharko dira.



- Diru zenbatekoa: 6.000 eurokoa izango da.
- Lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, beka adjudikatzen den egunetik hasita.

Eskatzaileak

Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, proiektuaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da ordezkari izan dadin.

Beka jaso ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Unibertsitate mailako ikasketak amaituta edukitzea edo ikasketa hauek burutzen ari zetea.

- Lana burutzeko orduan tutoretzat eta aholkularitza lanak egingo dituen pertsona gaitu baten babes eta laguntza izatea.

Eskabideak


Interesatuak Ordiziako udaltxeko Euskara Zerbitzura bidali beharko dituzte eskabideak, ondorengo agiri hauekin batera: espediente akademikoko zehaztua eta osatua, lortutako kalifikazioak eta horien datak adieraziz; jatorrizko alea edo fotokopia konpultsatua; curriculum vitae (lantaldeen kasuetan partaide guztienak); lana nola egingo luketenaren memoria bat, ahalik eta zehatzena (ikerke-

taren epeak, erabiliko den metodologia, dituen bitartekoak eta baliabideak); eta eskatzaileen nortasuna agiriaren fotokopia.

Bekadunaren betebeharrak

- Bekaren onarpena idatziz adieraztea emakida-egunetik hasi eta 7 eguneko epean.
- Lanaren garapenari buruz, aurkeztutako memoriaren arabera txosten bat aurkezte hiru-hilabeteko.
- Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketan berri ematea. Hala, korik ezin izango da egin Udalaren baimenik gabe.
- Bekaren amaieran, sei hilabeteko txostenaren ordeza, amaiera-lana aurkeztu beharko da, euskarri informatikoa.
- Ikerlana entregatzeko azken epea betetzen ez bada, justifikazio edo gauditu ezinezko arrazoirik gabe, penaltatu ahal izango da.

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA



OIANGUREN BHI

Altamira auzoa z/g
Tel.: 943 880 862
Faxa: 943 164 121
012282aa@hezakuntza.net

- ✓ **BATXILERGOA:**
- Zientifiko teknikoa
 - Humanitatea
 - Osasun zientziak
 - Gizarte zientziak

- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Alemana, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA : Maiatzaren 2tik 10era

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Gutun irekia Beasaingo Ikastola, Ikastolen Federazioa, Partaide, Erakunde Publiko, Alderdi Politiko, Agente Sozial eta oro har iritzi publikoari:

Beasaingo Ikastolak, sortu zenetik etengabeak izan dira bizi behar izan dituen larrialdi ekonomikoak. Gurasoei batera, irakasleok ere konpromisoak hartu eta elkartasunez jokatu dugu. Estuasunak estuasun, urtero, kurtso bukaerara aderez iristea lortu dugu, irailean berriro lanari heltzeko prest eta itxaropenarekin.

Bi mila eta bateko irailean iritsi zitzaigun hondamendia, aurreko ikasturteko krisiaren jarraipena besterik ez zena. Hogeita hamar ikasleekin gelditu ginen. Ez gara gu errudun bila hasiko, norberak jakingo du bere erantzukizunaren berri, baina garbi dago egoera honetara iristearen arrazoiak hainbeste aldarrikatu dugun elkarriketa, besteei errespetua eta norberak erabakiak hartzeko ahalmenaren kontrakoak izan direla.

Une horretan, aginte arazo larriak sortu ziren Beasaingo Ikastola kudeatzen zuen Andramendi Kooperatibako Batzordean. Bat-batean, beste aginte organo bat sortu zen. Azpian sinatzen dugun langile batzuen egoera oso larria zen, eta ordura arte, egoera zailetan, iristen ziren sosak denen artean banatzen ba genituen ere, inongo esplikaziorik gabe, norbanako edo batzuen arteko erabakia?, ez dakigu..., banatze hori gehien bultzatu zutenen aldetik eta hain zuzen administratibotik zuzenean dirua jaso zutenek, ez zegoela banaketa egiteko asmorik jakin edo antzeman genuen. Hiru geratu ginen ezer jaso gabe. Guztira bede-

ratzi milioi inguru, abuztuaren 31 bitarteko soldatak kontutan hartuta. Aurreko ikasturtean gure postura guztiz kontrakoa izan zen soldatak ez zirelako eguneratzen, eta zenbait neurri ere hartu genituen ikastolako Batzorde Erretorearen aurka.

Egoera honetan bi zati egin zen Beasaingo ikastolako klastroa. Batzuk onak eta besteak txarrak. Onak besteak, txarrak gu. Ahaztu zen hezkuntza emozionala eta norbanakoaren erabakitzeko ahalmena, eta azpian sinatzen dugun egoera jasan ezina bihurtu zen, batzuen eta besteena denboran ezberdina izan bazen ere.

Kilometroak zetozen. Une horretan sortu berria zen taldeak hartu zuen agintea, ekintzak gestionatu eta administratzeko. Hauek, nahiz eta lau haizetara zabaldu elkar-lana eta elkarriketa direla gure hezi bidea eta *Kilometroak* lanean aritu zirenei eta etorri ziren milaka lagunei eskerrak ematen zizkietela behin eta berriz adierazi, beste batzuk, *garena garela* edo, ederki baztertuak izan ginen, aurretik, egun berean eta ondoren. *Askorako ematen du nonbait lema honek*. Batek baino gehiagok negar egin genuen egun horretan eta ez pozez, horretarako arrazoiak baldin ba zeuden ere.

Kilometroak emaitza onak, ez zuten balio izan gure harremanak hobetzeko, eta dirua jasotzeko gutxiago. Gaur egun *mobbing* izenarekin ezagutzen dena, ondo probatua geratu da gure larrian.

Egoera honek, Andramendi Kooperatibako Lehendakaria, ondorengo erabakia hartzera bultzatu zuen: Azaroaren 29ko datarekin, azpian sinatzen dugun sei langi-

letatik lauei baimen ordaindua ematea, klastroan bizi genuen egoera jasan ezina zelako. Egun berean, langile ordezkariari eman genion jaso genuen baimenaren berri. Berehala izan genuen erantzuna. Abenduaren 13an jaso genuen gure kaleratzearen berri ematen zigun gutuna. Abenduaren 12tik aurrera, lanera ez agertze justifikatu gabea leporatuz, *berehalako disziplina kaleratzea* aplikatzen zigutela. Administariari azaroan aplikatu zioten. Non ote ziren hemen elkarriketa eta merezi genuen begirunea!, hala ere, komunikazioaz hitz egiten da aho betez... Beste biei, DBHko irakasleak izanik, bati kontratua amaitutzat eman zitzaion eta beste berriz, nahiz eta eszedentzia behartuan egon, borondatezkoa aplikatu zioten. Biak, ia kurtso osoko soldata jasotzeko dute (2000-2001).

Talde honetan, eta guztion artean, 15 milioi inguru ditugu kobratzeko. Une honetan gure babes bakarra juridikoa da, norbanako edo talderen baten babes morala baldin badugu ere. Zor zaiguna eta kanporaketaren aurka neurri legalak hartu beharrean aurkitu gara eta hemen ere guri babesik ez ematearren *presioak* egon dira.

Normaltasun itxura ematea oso ondo dago, baina zein da prezioa? Hau al da langileekiko jokabidea?. *Gurekin edo gure kontra al da leloa?* Ez gaude denbora gehiagoez gertatuko ez balitz bezala isilik jarraitzeko prest!

Bestalde, ezin dugu aipatu gabe utzi Partaide. Zer esana eta eginga baduela pentsatzen dugu, nahiz eta hauek ere isilik dauden. Ez da seguruenik Euskal Herrian beste lantokirik izango gu gauden egoeraren langilerik duenik eta Partaideri dagokio baita ere ego-

era honen aurrean zerbait egitea. Erabakimena duelakoan gaude eta ikastolan parte hartzen duten agente guztien bitartekari lana egiteko posibilitatea eta obligazioa ere baduela uste dugu.

Ekimen hau ez da beroaldi batean egindakoa. Denbora gehitxo pasatu da. Gureak ere konponbidea behar du, eta ez diruarena bakarrik. Hori baino gehiago merezi dugulakoa gaude, eta gure izena, izana eta garenarekiko errespetua exijitzen dugu, *garena garela*.

Montse Auzmendi, Miren Egunez,
Arantxa Aranburu, Arantxa Bengoa, Itziar Juarez eta
Belen Garmendia.

Martxoaren 23an Zaldibiako sarreran istripua izan zutenei:

Eskerrik asko gure herrira halako abiaduran sartzeagatik. Bai, eskerrik asko 50 km/h-ko seinalea ez errespetatu, eta abiadura bikoitzean sartzen saiatzeagatik. Eskerrik asko pasiatzen ari diren bi pertsonen gainera joateagatik. Eskerrik asko inoiz korrika egin dugun azkarren korrika eginarazteagatik. Eskerrik asko bihotza 250 taupada minutuan jartzeagatik. Eskerrik asko kotxetik irten eta begiratu ere ez egiteagatik. Eskerrik asko zer moduz zaudete? bat ez botatzeagatik. Eskerrik asko hitzik esan gabe alde egiteagatik. Eskerrik asko gizatasun hori agertzeagatik. Eskerrik asko, baina hurrengoan beste bide bat aukeratu, mesedez.

Enara Etxeberria -
Eider Jauregi (Zaldibia)

Aniztasun biologikoa edo bioaniztasuna

Azkeneko urte hauetan asko idatzi eta hitz egin da aniztasun biologiko edo bioaniztasunari buruz, baina askotan ez da ondo ulertu kontzeptu horren esanahia. Orrialde honetan eskaintzen zaigun aukera aprobetxatu nahi dut kontzeptu hori pixka bat argitzen saiatzeko, bioaniztasuna zer den eta zer ez den argitzeko.

Inguru nahiko homogeneo batean bizi diren bizidunak, inguruak berak eta beraien artean sortzen diren harremanak ekosistema bat osatzen dute. Horrela, baso desberdin bakoitzeko ekosistemaz, ibai eta erreketako ekosistemaz, landazabaletako ekosistemaz edo itsasertzeko ekosistemaz hitz egin dezakegu. Bioaniztasunak ekosistema horietako bakoitzak duen bizidun mota eta izaki kopuruak eta beraien arteko harremanen sendotasuna "neur-tzen" du.

Harizti bat, adibidez, hartzen badugu, bertan eta bertatik bizi diren bizidunak oso ugariak dira. Denak hartu behar ditugu kontuan, ez bakarrik handienak; baizik eta dauden guz-tiak. Azaletik ikusita, hauek izango lirakeke talderik nabariena: bakterioak, algak, onddoak, likenak, goroldioak, belarrak, zuhaixkak eta zuhaitzak, alde batetik, eta protozooak, moluskuak, anelidoak, artropodoak, anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak, bestetik. Milaka espezie bizi dira harizti batean, gehienak lur azpian. Denak elkarren beharra dute bere bizitza garatzeko eta beraien artean harreman sare zabal bat osatzen dute. Sare horrek zenbait eta korapilo gehiago eduki eta zabalagoa izan, orduan eta egonkorragoa eta emankorragoa izango da ekosistema: izurrite, uholde, su, eguraldi aldaketa eta inguruan gerta daitekeen beste edozein eragileren aurrean ekosistemaren erantzuna hobe izango da, kalteak txikiagoak izango dira eta sortutako zauriak lehenago itxiko dira.

Aniztasuna denboraren poderioz lortzen du ekosistema batek. Orokorrean, zenbait eta denbora gehiago eraman ekosistema horrek leku batean eraldaketarik eduki gabe, orduan eta anitzagoa izango da, eraldaketak izan di-tuen antzeko beste ekosistema batekin edota sortu berria denarekin neurtzen badugu. Horrela, mendeetan zehar iraun duen harizti ba-

tek aniztasun gehiago edukiko du bere lurretan egin den belardi, soro edo pinudi batek baino. Kontuan eduki behar dugu Goierriko belardi, soro eta pinudi gehien-gehienak hariztiak garatutako lurretan egin direla eta bertan dauden bizidunak hariztiak sortzen duen giro-ra adaptatutakoak direla. Zuhaitzak bota, belarra erein, goldatu edota zuhaitz espezie oso desberdina landatzen badugu, inguruko baldintzak zeharo aldatzen direnez, bertan bizi diren izaki mota asko desagertu egiten dira eta oso gutxi dira kanpotik sartzen direnak. Sareak korapilo gutxiago edukiko ditu eta txikiagoa izango da, ekosistema ahuldu egingo da.

Bestalde, aniztasuna ez da lortzen espezie berriak sartuaz (jaregin, erein, landatu, ...). Sartzen ditugun bizidunak oso erraza da, gehienetan gertatzen da, inguruko baldintzak edo bizidunen arteko harremanak aldatu eta sartu ditugun baino espezie gehiago galtzea. Hori gertatu ohi izan da bertakoa ez den zuhaitz mota bat edo gehiago landatzen direnean sail handi batean, kanpoko animaliak askatzen direnean edota belar hazi "komertziala" ereiten denean. Adibide asko, eta batzuk oso gogorrak, ezagutzen dira munduan zehar. Aniztasuna bermatzeko era bakarra ahalik eta eragin gutxienekin berari garatzen uztea da, nahiz eta batzuetan lagungarri izan desagertu den espezieren bat edo beste sartzea.

Orain arte esandakoarekin adierazi nahi dut aniztasuna ez dela neurtzen arboladi batean dauden zuhaitz mota kantitatearekin, ez soro batean ereiten diren bazka mota kopuruarengatik ezta lorategi batean landatzen diren lore bariatatearengatik, baizik eta leku horietan eta horietatik bizi den bizidun multzoaren aniztasunagatik, gizakiarengandik hasita, landare, animalia, onddo, alga, protozoo, bakterio eta besteetaraino. Lizarrak, elorriak, oteak, kuku-prakak, txantxangorriak, saguak, igelak, armirmak, txindurriak, bareak, zizareak, lizunak, ..., denak dira aniztasuna neurtzekoan kontuan eduki beharrekoak, bestela, oso ohizko diren txatxalkerietan eroriko gara.

Carlos Aseginolaza

LIBURUA

De caserio agrícola a vivienda rural: Evolución de la función agraria en la comarca de Donostia-San Sebastián. (Juan Cruz Alberdi Collantes 2001): Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza eta Arrantza saila. LUR bilduma. Autorearen (Behe-mendi elkartearen gerentea) doktore-tesiaren laburpena da. Datu ugari eta zehatzekin aztertzen du baserriaren bilakaera azkeneko hamarkadetan. Lan bikaina gaur egungo baserriaren egoera ezagutu eta ulertzeko. Nahiz eta Beterriko datuak eta egoera aztertu, berdin balio du Goierriko egoerarako.

JAKIN BEHARREKOA

Aurreko hilabeteen esaten genuen udaberria antzematen hasia zela. Egin duen eguraldi epel eta eguzkit-suarekin, orain **UDABERRIA BETE-BETEAN DUGU GURE ARTEAN**. Behe aldeetan zuhaitz eta zuhaixka guztiak hostatu dira, gehien-gehienak hostoekin batera loratu egin dira, lizarra, haritza, urkia, intxaurrendoa, gereziondoa eta beste fruta-arbola asko bezala. Belardiak San Juan lorez eta beste lore koloretsu askoz estaliak aurkitzen dira. Goi aldeetan, berriz, orain nabari dira pagoaren lehen hostoak. Hau ere berdatzearekin batera loratuko da. Ametzaren begiak potolotzen hasiak dira, baina oraindik egun batzuk pasa beharko dira hostoak eta loreak ikusi ahal izateko.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44



Naroa Arrieta
Kemen KOZ

Laster datozen herriko jaiei aurre egin ahal izateko kontutan eduki beharko genituzke hainbat aholku. Oro har jendeak ezagutu eta ez beti praktikan ipintzen dituen zenbait gomendio ematea derrigorrezkoa litzateke:

● **Bazkari nahiz afari "ko-piotsuak" arintzea** ahal den neurrian. Kantitate handitan edo janari oso koipetsuak jateak ez digu onik egingo. Gisa honetako otorduak bigarren platerekin eta hainbat postrekin zerikusia badute

ere, ezin ditugu ahaztu "pikatzeko" ipintzen diren hainbat jaki (gehienetan saltsa koipetsuz, itsaskiz edo txerrikiz osaturikoak).

Otordu hauen oinarri barazki, fruitu edota zerealak izan beharko lirateke; ondorengo platerak (haragi, arrain, itsaski eta errepostariko postreak) kantitate txikiagotan jateko.

● Jakietaz gain, "**kalori hutsz**" osaturiko hainbat janari eta edari kontrolatzea derrigorrezkoa suertatzen da. Saillkapen honetan alcohola, koipeak eta azukreak sartuko genituzke, halere ezin ditugu "txutxeriak" talde honetatik at utzi. Multzo honetan sartutakoen ezaugarri nagusia Kaloriaz gain nutrierik ez izatea izango li-

tzateke, hau da, bitaminik, mineralik edo liseriketarako beharrezko diren sustantziak ez izatea.

● Otordu hauen **biharamona janari "garbi-z"** (koipe gutxiarekin eginikoak), fruitu, zuku eta urez hornituko dugu. Ajearen kontrako gomendio nagusia hidratazio egoki batean datza, gure dieta zukuz, barazkiz edota grasarik gabeko salda osaldatekeelarik.

● Aurreko puntuak bezain garrantzitsua jarduera fisiko bat burutzea izango da, baina kontutan izan behar dugu jarduera hori ez dela maximala edo intentsitate altukoa izan behar, beraz, hobe litzateke ibiltzea, igeri egitea edota bizikletan paseatzera joango bagina.

Festetan ere osasuntsu

Euskara txukunean

Bera eta Berdin

Ikus ditzagun ondorengo esaldiak: *Soineko bera erabiltzen dute. Soineko berdina erabiltzen dute.* Lehenengoan soineko bakarraz ari gara; bigarrenan, berriz, soineko batez baino gehiagoz ari gara. **Berdinak** izan arren (kolorea, etxea edo marka...) ez gara soineko beraz ari.

Beste-ren erabilera

Maiz antzean egiten dugun akats baten berri emango dugu. Erreparatu ondorengo esaldiari: *Beste egunean Maialen Lujanbio bertsolaria ikusi nuen.* Esaldi honek zuzena izateko horrela beharko zuen: *Lehenengo egunean (lehenengoan, aurrekoan) Maialen Lujanbio bertsolaria ikusi nuen.*

Maizpide Euskaltegia



GERRIKO
☎ 943 88 65 00

GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA
☎ 943 16 02 82

LIBURUDENDA KULTUR ELKARTEA
TXOKOA

Geurean geure kultura!
Goierriren bihotzean, GERRIKO



ATAUN S. MARTINGO
BARANDIARAN Anaia

aitzondo
roztegia, S.L.

41 Posta Kutxa
Zubierreka, z/g

☎ 94316 09 31 **LAZKAO**

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Aseguru Korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1 - behe

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

- Gidatzen ikasteko adinik onena:

18-20 urte.

- Gehiena ikastea kostatzen dena zer da?

Orain arte teorikoa zaila izaten zen, baina orain praktikoa ere asko zaildu dute.

- Auto eskolentzako garairik onena zein da?

Ikasle gehien udan izaten dugu baina guretzat, erakusteko garairik onena, negua da.

- Gidatzeko baimena beharrezkoa al da?

Bai. Herrietan bizi garenok behintzat bai.

- Emakumezkoak gidari txarragoak al dira?

Emakume ona oso ona da eta mutil txarra, oso txarra. Teorikan neskak hobeak dira, saiatuagoak.

- Gidariak gero eta hobeak ala txarragoak dira?

Denetik dago.

- Zein da egiten den arau hausterik ohikoena?

Abiadura.

- Trafikoaren lege berriarekin berriz ere auto eskolara joateko arriskua dute legea hausten duten gidariak.

Zuentzat lan gehiago:

Oso zaila izango da.

- Zenbat urterekin

atera zenuen

gidatzeko baimena?

24 urterekin.

- Auto eskolako irakaslea izateko zein dohain behar da?

Pazientzia handi samarra eduki behar da.

- Festak eta autoak ondo uztartzen al dira?

Hobe ez autorik hartzea festetan.

- Autoa ez da jostailua.

Ez horixe. Bere errespetua du autoak, bizitza jokatzeko da eta.

- Lazkaoko festetan zer duzu gustuko?

Etxean lasai egotea, atsedean hartzea.

- Zer gehituko zenieke Lazkaoko festei?

Festak auzoetara zabaltzea. Lehen txanbolinteroak joaten ziren auzoetara.



Maria Dolores Irvin
(Irvin auto eskola)

MIKEL
OPTIKARI
OPTOMETRISTA
DIPLOMADUNA
UKIPEN LENTEEN
EGOKIERA
OPTIKA
Hirigoien,7
943 88 09 35
LAZKAO

ZUZENKI
Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa
AHOLKULARITZA
www.txekin.net
Etxebizitzaren salmenta: Legorreta Beasain Orendain
Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosgi, 16 **LAZKAO**

San Prudentzio jai zoriontsuak!

ZUREMOTO, C. B.
GAS GAS banatzaile ofiziala
Hiribarren Atze Poligonoa, 1
943 88 39 03 **LAZKAO**

IÑAKI BARANDIARAN
arrandegia
San Prudentzio jai zoriontsuak denoi!
943 88 00 56
San Jose, 29 **LAZKAO**
JOSUNE
arrandegia
943 18 03 67 **ATAUN**

AMEBI

Sagardotegia
Sanprointzioak ondo pasa!
Apirilak 27, larunbat gaua eta
apirilak 30, astearte eguerdia
trikitilariarekin alaituak.
943 16 25 23
Zubierreka,9 **LAZKAO**

San Prudentzio jaiak Lazkaon

Apirilak 26, ostirala:

16:00etan: Xakea haurren-tzako.

17:00etan: Barraken inau-
razioa.

19:00etan: Txupinazoa, Hin-
txable txarangarekin.

20:00etan: Xukan taldea.

22:30ean: Pilota partidua.

23:30ean: Drindots.

Apirilak 27, larunbata:

11:30ean: Giñola Bihar tal-
dearekin.

12:00etan: Aldatz gora fan-
farrea.

12:30ean: Oin Arin.

15:30ean: Txirrindulari pro-
ba.

16:00etan: Xakea Ikastolan.

16:00etan: Pelota erakustal-
dia.

16:30ean: Scalextric.



17:00etan: Kenpoa, Kirolde-
gian.

18:00etan: Bezperako elizki-
zunak.

19:00etan: Karrera amaiera
eta fanfarrea.

20:00etan: Irailerako 6 talde-
arekin dantzaldia.

20:00etan: Mozorrotuen el-
kartzea.

23:30ean: Irailerako 6 talde-
arekin dantzaldia.

Apirilak 28, igandea:

9:00etan: Txistularien goiz
eresia.

10:30ean: Prozesioa.

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Mutil dantza kor-
porazioaren aurrean.

12:30ean: Urrezko Aizkora.

18:30ean: Danborrada eta
Lazkaoko Martxaren aurkez-
pena.

20:00etan: Txatunga Benbe.

23:00etan: Txatunga Benbe.

Apirilak 29, astelehena:

9:00etan: Barazki eta artisau
azoka.

11:00etan: Haurrentzako
parkea, arratsaldeko 7ak arte.

16:30ean: Azkona taldea.

18:00etan: Playbacka eta
mozorro lehiaketa.

19:30ean: Sardina jana.

20:00etan: Akelarre taldea-
rekin dantzaldia.

Apirilak 30, asteartea:

12:30ean: Koadrilen bilkura
txarangarekin.

17:00etan: Telmah taldea
www.txapuzas.klown.

18:00etan: Koadrilen kaleji-
ra.

20:30ean: Drindots taldeare-
kin dantzaldia.

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

☎ 943 88 26 31

Gurutze, 2 LAZKAO

GASTEIZ

ILEAPAINDEGIA

Festa onak pasa!!!

Hirigoién, 24

☎ 94388 05 83

LAZKAO

OSAKI

* Sendabelarrak

* Naturopata

* Masajista

Ana Mari Egea

Mikelar, 1 ☎ 943 88 93 62 LAZKAO

PIPAS
JATETXEA

Jannartze, bataio edo edozein
ospakizunetarako ankera egokia

Albitxu baserria ☎ 943 88 08 05

LAZKAOMENDI



ILEAPAINDEGIA

Oxakari

Jai zoriontsuak
denoi

Hirigoién, 12

☎ 943 88 92 41

LAZKAO

LAZKAO berogailuak

Jai zoriontsuak denoi

Pedro Berano Salcedo

☎ 943 883 158 - 610 214 153 ☎

Hirigoién, 34 LAZKAO

ANDERE
USA INDEGIA

- Depilazioak
- Solarium-a

Gurutze, 3

☎ 943 88 30 02

LAZKAO

OSTAISKA
Goxoki denda

✖ Goxokiak
✖ Fruitu lehorrak
✖ Izoziak

Elosegi, 2

LAZKAO

LEKIM
HAROTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83

LAZKAO

☎ (mugik.) 616 10 61 15

Maiatzak 1, asteazkena:

10:30etan: X. Igerik lehiaketa.
12:00etan: Gorriti eta abereak.

12:00etan: XIV. Bakailao lehiaketa.

12:00etan: Trikitixa.

16:00etan: Toka txapelketa.

18:00etan: Dantza libreko txapelketa.

19:00etan: Pasai Txaranga. Txu Txu trena.



Lazkaomendiko jaiak

Maiatzak 4, larunbata:

16:00etan: Txirrindulari proba.
Arratsaldean, Pailazoak.
21:00etan: Auzo afaria.
23:00etan: Trikitixa.

Maiatzak 5, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.
12:00etan: Haur jokoak.
13:00etan: Bertsolariak, txisteak, trikitixa.
17:00etan: Herri kirolak.
18:30etan: Bertsolariak.
19:00etan: Trikitixa.

Tabernariak antolatutako gaueko festa

Apirilak 19, ostirala:
Rhune eta Alaiki.

Apirilak 20, larunbata: Muxutruk.

Erakusketak

Egurrezko txirrinduak

San Benito Ikastolan, Lazkaoko Taila ikastaroko ikasleek egindako egurrezko txirrinduak ikusgai.

Azkikoen eskulan erakusketa

Azki, Emakumezkoen taldekoen eskulaneen erakusketa ikusgai izango da Kultur etxean, apirilaren 27tik maiatzaren 1era. Ordutegia: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

DAMA

ILEAPAINDEGI-ak

Festa onak opa dizkizue!!

Hirigoien, 16

☎ 943 88 58 95 LAZKAO

**ARRIARAN
MERTZERIA**

Haurren jantziak

Hirigoien, 12

☎ 943 16 06 82 LAZKAO

**UNAI
ARRANDEGIA**



Ondo ibili festetan!

Gurutze, 4

☎ 943 88 79 33 LAZKAO

Garin

OKINDEGIA



Hirigoien, 14 | Pl. Nagusia, 5

☎ 943 16 23 36 ☎ 943 88 04 33

LAZKAO | ORDIZIA

AMAREN EGUNEAN,
MAIATZAK 6,
GOIZEAN ZABALIK



☎ 943 88 49 65

Jose Lasa, 9 LAZKAO

TAPIA
Instalazio
elektrikoak



Ibabe Industrialdea, 18 ☎ 943 88 95 94
82 postakutxa LAZKAO

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 943 88 80 23 LAZKAO

**ITXURRENE
TABERNA**

Bazkariak
Jaunartzeak
Bataioak...

☎ 943 885759 LAZKAOMENDI

**PELLO BIDE GAIN
HARATEGIAK**

Jai zoriontsuak opa dizkizue

☎ 943 88 93 57

Mikelar, 1 LAZKAO

Baserri Eskola sortzea du amets

Sandra Fernandez artisaua: naturako elementuekin osatutako emaitza

Bartzelonatik Arantzazura eta Arantzazutik Lazkaora. Ibilbide horixe egin du hiru urteotan Sandra Fernandezek. Artzain Eskolara joan zen, nekazaritzako ikasketak bukatu ondoren, latxa ardia eta haren esnearen inguruko jakinduria areagotzearen. Harrezkero, Euskal Herrian bizi da, Lazkaon. Bere ametsetako proiektua gauzatzeko bidea aurkitzen duen bitartean, beste zaletasun bati ekin dio: artisautzari. Bi gaiak landu ditugu Sandra Fernandezekin, baserri eskolaren gaiaren inguruan ezkor samar aurkitu badugu ere.



Sandra Fernandez Arantzazuko Artzain Eskolara etorri zen duela hiru urte. Ingenieriaritza Tekniko Agronomo ikasketak egin zituen eta latxa ardia eta bere esnearen gaiaz ikastera etorri zen.

Artzantza

Artzantzaren mundua ezagutzera etorri zen Sandra Kataluniatik Euskal Herrira. Kataluniatik etorri zenean ez zuen artzantzari buruzko berri handiegirik. Latxa ardia ezagutzen zuen, lur mankomunak ere bai, baina hortik aurrera ezer handirik ez. "Aurretik etorri gabe nengoen Euskal Herrira. Arantzazura

joan nintzen zuzenean. Urrian etorri nintzen eta hamabost egunean, euria eta lainoa besterik ez zuen egin. Ez zen ezertxo ere ikusten eta ez nekien non nengoen", kontatu digu bitxikeri moduan.

Artzantza nahikoa indartsu ikusten du, batez ere, Artzain Eskolari esker. "Lan handia egiten ari dira. Askok aldatu da artzantza. Idiaza-

bal Gazta oso indartsu dago".

Artisaua

Arantzatik bueltan, behin Lazkaon kokatuta, artisautza lanean hasi zen Sandra Fernandez. "Lehen ere egiten nituen eskulanak, baina batez ere, nire ingurukoei opariak egiteko", dio Sandra Fernandezek. Gabiltza, Gipuzkoako Artisauren Elkarteko kidea da eta azokaz azoka ibiltzen da bere artelanak saltzen.

Hiru produktutan oinarritzen du bere lana. Mediterraneo pinuaren azalarekin belarritakoak eta lepokoak egiten ditu. Sorgin berezi samarrrak ere egiten ditu, garbantzu, eukalipto, ezkurra, artilea erabiliz. Azkenik, jantziak margotzen ditu, batez ere haur eta nesken jantziak. Gustura dago emaitzekin.

Familiatik datorkio artisautzarako zaletasuna. "Etxean beti egin ditugu gauzak.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe



AZKARATE IBABE INDUSTRIALDEA
☎ 943 88 81 01
LAZKAO



MAPFRE
ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!

Pello Barandiaran

☎ 943 16 13 61
Jose Lasa, 3
LAZKAO

Artisauak izan dira. Ama jos-tuna da. Ni artisautza egiten hasi nintzen lagunei oparitze-ko”.

Irudimenak asko lagundu dio katalanari. Naturak ematen dituen elementuei formak emanez sortzen ditu arte lanak. Belarritako eta lepokoan kasuan, mediterranearen pinuaren azala linaza olioarekin tratatzen du. “Forma ezberdinetan moztu eta margotu egin zitekeela bururatu zitzaidan eta horrela hasi nintzen. Esperimentua egin eta gustura nago. Sorginekin ere esperimentua egin nuen eta horrela jarraitzen dut. Garbantzuak sudurra eta abar zuela ikusi nuen. Burua egiten dut garbantzuarekin. Gero gauzak gehitzen joan nintzen”.

Baserritik bizitzea amets

Artisautza lana behin-behineko ogibidea du Sandra Fernandezek. Izan ere, katalanak Baserri eskola sortu eta bertatik bizitzeko ametsa baitu. Ideia buruan darabilki, baina gauzatzea zail ikusten du, momentuan behintzat, baserria eta lursaila lortzea ez baita batere erraza, “espekulazio oso handia dago baserriaren

eta lurzorua inguruan”. Horretaz gain, nekazal politikak gazteentzat ez direla batere lagungarriak dio Sandra Fernandezek. “Oso gaizki antolatuta daude. Baserriak galtzen ari dira eta horrela jarraituz gero, baserriak erorita eta lurrak pinuz beteta ikusiko ditugu. Askok baserria saldu baino nahiago dute erortzen uztea. Gaur egun, artzainek eta baserritarrek indar handia daukate, dagoen egoera zail honi eusten. Pinua askotan baserria aurrera ateratzeko soluzioa izan da baina lurarentzako ez da onena. Beste zuhaitz batzuk landatzeko laguntzak bideratu beharko litzateke”.

Goimen elkarteak antolatzen duen Ideia Berritzaileen atalean, saritua izan zen Sandra Fernandez eta Iñaki Elgarrestaren lana. Nekazal jarduera eta granja eskola martxan jartzea uztartzen dituen proiektua aurkeztu zuten. Gure baserrietako animalia arrazak zaindu eta bisitariak sentibilizatu. Elkarriketa egu-



nean ezkor samar harrapatu genuen Sandra.

Bertako zenbait animalia arraza berreskuratu eta bisitariari, batez ere ikasleei, bakoitzaren informazioa eman nahi dute, gizartea sentibilizatu. “Latxa ardia adibidez, berreskuratua dago; pottokarekin ere ondo ari dira lanean. Baina baudaude beste animalia batzuk desagertzeko arriskuan daudenak. Batzuk, da-

goeneko desagertu dira. Natura eskola honetan, hemengo animaliak nolakoak diren eta batez ere nolakoak ziren azaltzea nahiko litzateke. Haurrek sabanako animaliei buruz asko dakite, hemengoei buruz baino askoz ere gehiago”, dio Sandrak kezka-ti. Gaur egungo haurrek bertako animaliei buruz oso gutxi dakitela uste du Sandrak, Goierriren kasua ez bada ere. “Askok ez dakite esnea nondik datorren. Beste arazo bat ere badago: haur bati behia margotzeko esaten badiozu, behi pintoa margotuko du. Baina behi pintoa ez da hemengoa. Holandako arraza da”.

Euskaraz ikasten

Euskaraz ikasten ari da eta ondo moldatzen da Sandra Fernandez. Maizpide euskaltegian dabil euskara ikasten. “Artzain Eskolan hitz batzuk bakarrik ikasi nituen euskaraz. Hori bai, entzumena asko landu nuen eta hori asko nabaritzen da orain”.



NEGUERUELA
BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA

☎ 943 16 08 30

Jose Lasa, 3 LAZKAO



Etxe - Zuri
Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Sagardoa txotxetik urte guztian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko ofordu, despedida, e. a.



BEREBILEN ELEKTRO
KONPONKETAK

HIRIBARREN, 17
TFNOA.: 943 88 74 58
LAZKAO

Ioritz eta Heber Garmendia moto kros txapeldun lazkaotarrak

Heber, anaia handiaren arrastoari jarraituz, dabil Ioritz moto krosean. Ioritzek 80 c.ckoa motorra du eta Heberrek 125 c.ckoa. Familian lanak ondo banatuta dituzte: Lokaztutako arropak garbitzea amaren lana da. Motorrak garbitzea, Ioritz eta Heberrena. Motorrak konpontzea, aitarena. Eta, lasterketetara joatea, familia osoarena.

Ioritz

Ioritz Garmendia jubenil mailan motokros Euskadiko txapeldun da. Orain kadete mailara igo da eta zailagoa dauka. "Aurrekoan karrera bat eduki nuen eta 6. egin nuen. Diferentzia handia dago. Orain txikiena naiz eta horretaz gain, bi bakarrik gabiltza 80 c.c. motorrarekin. Besteak 125-koarekin dabilta". Elkarriketa egin genionean Bidegoiango moto kros txapel-



Ioritz eta Heber, lortutako sariak eta Heberren 125cc.-ko motorra erakusten.

ketan parte hartu berria zen.

Ioritz 7 urterekin hasi zen motorrean ibiltzen. Moto kros lehiaketetan, berriz, 11rekin. Irakaslea anaia izan du, "Heberrek gehiago dakienez, bere atzetik ibiliz ikasten dut".

Heber

Heberrek auto istripua izan zuen eta geldirik dago orain.

"Aurtengo denboraldia ia bukatutzat ematen dut, bi lasterketa galdu baititut dagoneko. Motorrean eduki izan banu sikiera istripua!", dio atsekabetuta.

Senior mailako lasterketan parte hartzen du Heberrek. Junior mailan, hirugarren urtez segidan, Euskadiko txapeldunorde gelditu zen iazko denboraldian.

Heber oso gazterik 5 urterekin hasi zen motorrean ibiltzen. Moto krosean 13 urterekin hasi zen, aurretik trialean ibiltzen baitzen. Lasterketetan aurreko muturrean ibiltzeko sekretua, ahal den gehien motorrean ibiltzea du, besteak egiten dutena ikusiz eta ikasiz.

Entrenatzeko zailtasunak

Entrenatzeko zailtasunak dituzte Goierriko moto krosleriek. Falceseko zirkuitua, Nafarroan, dute gertuena. Nahiz eta orain Beasain aldean, behin-behinekoz entrenatzeko moduko lekua aurkitu duten.

Moto krosean ondo ibiltzeko fisikoki ondo egotea ere garrantzitsua da, nahiz eta prestakuntza fisiko gehiegirik lantzen ez duten.

Entrenatzeaz gain diru-laguntzak ere behar izaten dituzte, "oraingoz, Azpeitiko motor saltzaile batek beherapenak egiten dizkigu motor eta piezetan. Bestela ez dugu laguntzarik", diote Garmendia anaiek.

IKER errekaadista

Lazkao - Donostia zerbitzua
Eguneroko eramane-ekarriak

☎ 943 88 29 26
608 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A
LAZKAO

Auto EASO



Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955



RENAULT
AGENTZIA

Festa onak
pasa!

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

OIARBIDE harategia

festa onak opa dizkizuegu
Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
☎ 943 88 17 17

LAZKAO

Elosegi, 15
☎ 943 16 05 16

LAZKAOKO FESTETAKO GIROA

MANUEL-ENEA TABERNA


Festa onak pasa!

Elosegi, 5 ☎ 943 88 20 29

**GURUTZE
TABERNA**

SANPROINTZIO JAIETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

GURUTZE 1



GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*

Areso, 6 ☎ 943 88 77 40

ANSOATEGI HERRIKOA



*Jaietan ere
falta direnak
gogoan*

Elosegi, 15 ☎ 943 88 68 52

DORRAO TXIKI TABERNAK

*Festa zoriontsuak
opa dizkizue!*

ESTANKO TABERNA

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

Elosegi, 17

GERRIKO TABERNA

Pintxoak
Ogitartekoak

Elosegi, 16 ☎ 943 88 99 43



TABERNA


Uhaitz, 2 LAZKAO

KIROLDEGI TABERNA

*Eguneroko menua
Pintxoak
Bokatak*

☎ 943 16 19 66

ZELATA TABERNA



IDIAZABALEN V. GAZTA EGUNA Maiatzak 5, igandea



**Idiazabalgo
Udala**

Egitaraua

Apirilak 30, asteartea:

19:00etan: Marije Insausti (EHNEko lehendakaria) eta Maider Aramendiren eskutik, 'Emakume baserritarren argia' hitzaldia Pilarreneako ganbaran.

Ondoren: Mami txapelketa Jubilatuen elkartean.

Maiatzak 2, osteguna:

19:00etan: '2000 urteko Mundu mailako ardi mozte lehiaketa Hegoafrikan', bideo emanaldia,

Pilarreneako Ganbaran, Pedro Antonio Cañadasen eskutik.

20:00etan: Gazta dastatzea, Patxi Perez Elortondo adituaren iritzia tarteko, Jubilatuen elkartean.

Maiatzak 3, ostirala:

19:30ean: Ardo dastatzea Joserra Agirianorekin, Jubilatu Elkartean.

Maiatzak 4, larunbata:

21:00etan: Herri Afaria herriko elkarteetan (txartelak aurrez salgai tabernetan).

Maiatzak 5, igandea:

10:00etan: Artzainek gazta salmentarako postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzainek gazta egingo dute era zaharrera eta modernora.

11:00etan: Artilegintza erakustaldia.

12:00etan: Mami erakustaldia.

13:00etan: Herriko bi artzainei omenaldia.

Arratsaldean, Herri Kirolak Igarondo Pilotalekuan:

Banakako Urrezko Aizkora: Nazabal
Peñagarikanoren aurka.



hilean

euro

1

**Goierritarra
etxean jasotzeko**

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefonia: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

**Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut** ☐

**Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut** ☐

**Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)**

kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik

Maiatzaren 5ean, V. Gazta eguna Idiazabalen

Astean zehar ere hainbat ekitaldi antolatu da

Maiatzeko lehenengo igandean, maiatzaren 5ean, Gazta eguna ospatuko dute Idiazabalen. Herriko bi artzain omenduko dira, nortzuk izango diren oraindik ere zehaztu gabe badaude ere. Aurretik ere, astean zehar, hainbat ekitaldi ere izango dira. Mami lehiaketa, hitzaldiak, ardo eta gazta dastatzeak, herri afariak, aizkolariak... egitarau oparoa antolatu dute idiazabaldarek. Jarraian duzuen egitaraua egunez egun.

Apirilak 30, asteartea:

19:00etan: Marije Insausti (EHNEko lehendakaria) eta Maider Aramendiren eskutik, 'Emakume baserritarren argia' hitzaldia Pilarreneako ganbaran.

Ondoren: Mami txapelketa Jubilatuen elkartearen.

Maiatzak 2, osteguna:

19:00etan: '2000 urteko Mundu mailako ardi mozte lehiaketa Hegoafrikan', bideo emanaldia, Pilarreneako Ganbaran, Pedro Antonio Cañadasen eskutik.



Arg.: Fotoetxe

20:00etan: Gazta dastatzea, Patxi Perez Elortondo adi-tuaren iritzia tarteko, Jubila-tuen elkartearen. Izena Udale-txean eman behar da apirilaren 26a baino lehen (gehie-nez 30 lagun).

Maiatzak 3, ostirala:

19:30ean: Ardo dastatzea

Joserra Agirianorekin, Jubi-latu Elkartearen. Izena Udale-txean eman behar da apirilaren 26a baino lehen (gehie-nez 30 lagun).

Maiatzak 4, larunbata:

21:00etan: Herri Afaria he-rriko elkarteetan (txartelak aurrez salgai tabernetan).



Maiatzak 5, igandea:

10:00etan: Artzainek gazta salmentarako postuak ireki-ko dituzte.

11:00etan: Herriko artzai-nek gazta egingo dute era za-harrera eta modernora.

11:00etan: Artilegintza era-kustaldia.

12:00etan: Mami erakustal-dia.

13:00etan: Herriko bi artzai-nei omenaldia.

Arratsaldean, Herri Kirolak Igarondo Pilotalekuan: Ba-nakako Urrezko Aizkora: Nazabal Peñagarikanoren aurka.

Goizean gazta debalde dastatzeko aukera izango da. Bildutako jendearen iritzia kontuan hartuz, gazta onena eta postu dotoreenari sari ba-na emango zaie.

Ardi mozte ikuskizuna ere izango da, goizean zehar, eskuz eta makinaz. Azkenik, euskal artzain txakurrak eta 'Mastin' arrazakoak erakus-gai izango dira goizean ze-har.

Trikitilariek eta txistula-riek giroa alaituko dute. Hainbat jaki eta edari postu ere egongo dira.



ARRIKUTZ Tailerrak

Autoen konponketa orokorrak

Salmenta

Informazioa

Karnetik gabeko autoak

Tel.: 943 88 52 00

Nafarroa Etorbidea, 51

BEASAIN



Internet herritarren eskura

Apirilaren 26tik aurrera, idiazabaldarrek Internet zer den ikasi eta hura erabiltzeko aukera izango dute. Hori da, Pilar Eneako ganbaran egun horretan inauguratu den KZ gunearen helburua. Eusko Jaur-laritzaren ekimenez, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat herritan martxan dauden Konekta Zaitetz guneei gehituko zaie Idiazabalgua.

Herriko KZ gunean 12 ordenagailu eta arduradun bat egongo dira. Pilar Eneako ganbararen erdia hartuko du. Alde batean, lau ordenagailu egongo dira, Internet erabiltzen dakitenek bere kasa ibiltzeko. Beste aldean, Interneten nabigatzen ikasteko 8 ordenagailu egongo dira. Horretarako ikastaroak antolatuko dituzte. KZ gunea astele-



*KZ gunea apirilaren 26an inauguratuko da Pilar-enean
Argazkia: Fotoetxe*

Zuberoari laguntza

Zuberoak bizi duen egoerari aurre egiteko, zuberotarrek martxan jarri duten "Xiberoa 2010" ekimenari laguntzeko taldea sortu da herrian. Udalbiltzaren ekimenez osatu da taldea. Udalbiltzak milioi bat euro bildu nahi ditu zuberotarrek abian jarritako ekimenari laguntzeko. Herriko taldearen esanetan, Udalbiltzak egindako kalkuluen arabera Idiazabali kopuru horretatik 3750 euro biltzea dagokio. Herrian sortutako taldea dirua lortzeko ekintzak prestatzen ari da. Horien artean, Zuberoako Muskildi herriarekin hasitako hartu emana sendotuko duen ekimen bat egitea aztertzen ari dira.

henetik ostiralera egongo da zabalik, goizetan 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara.

KZ guneen helburuak, Interneten inguruko kultura sortzea, Internet eguneroko bizitzako tresna bihurtzea eta teknologia berriak erabiltzeko aukera gutxi dutenei horietarako bidea erraztea dira. Jubitatuak, langabetuak eta etxean lanean aritzen diren emakumeak sartzen ditu talde ho-

rretan KZ ekimenak.

Pilar Eneako KZ gunea, 18 urtez gorako herritar guztientzat egongo da zabalik. Bertan egongo den arduradunak (kronika hau idazterakoa, arduradunaren aukeraketa egiten ari zen KZ ekimena) antolatu eta koordinatuko ditu ikastaroak eta ordenagailuen erabilera. Informazioa eskuratzeko bertara jo behar da.

Xabier Urteaga

Mus txapelketak

Martxoaren 16an jokatu zen Aitz-buru elkartearen urteroko mus txapelketa, Joseba Zabaleta eta Asier Agirre suertatu ziren aurtengo irabazle.

Larunbatean, apirilak 20, herriko Ostaturko txanda eta bertan ere aurtengo mus txapelketa jokatu da.

Aitz-buru elkartetik kostalderra

Urte dezente badira Aitz-buru elkartearen urtero ateralditxo bat antolatzen duela. Azken urteotan Errioxa aldera egin ohi da eta aurtengo beste txoko batzuk ezagutu nahian, Getaria, Zarautz eta Orio aldean pasa zuten eguna apirilaren 13an. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, egunpasa bikaina pasa zuten joandakoek.

Goierriko bola txapelketa

Apirilaren 6an jokatu zen Goierriko txapelketari dagokion saioetako bat, herriko bolatokiaren. Azken tiraldia apirilaren 20an izango da Idiazabalen.

Iñaki Ugaldes



AUSO EGI

Urdaneta, 41
Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



JAKINTZA IKASTOLA

Altamira auzoa ORDIZIA ☎ 943 16 05 40 Faxe: 943 16 07 90 E-mail: ordizia@ikastola.net

Batxilergoa Jakintza ikastolan

Zientifiko teknikoa eta

Osasun Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

- ⇒ Herrigintzatik sortutako eskola eredu
- ⇒ Euskaraz Bizi eta Euskara Elkarte ikastolan
- ⇒ Gertuko harremana
- ⇒ Euskaliten kalitatearen diploma
- ⇒ Deitu eta zita adostuko dugu! (943 16 05 40)




JOS-BEL. ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15

ORDIZIA

☎ 943 888 252



ZUTIKAKO
SOLARIUMA

KOSMETIKA
OSAGAIK

ILEARENTZAT
TRATAMENDUAK

MAKILAJEA,
MANIKURA

ORRAZKERA
BEREZIAK





Txindoki-Alkartasuna
Institutua



U g a r t e m e n d i , 6 . 2 0 2 0 0 B e a s a i n .

B a t x i l e r g o g u z t i e n k

HUMANITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Ekonomiak
Administrazio eta enpresa
Humanitate-enpresa
Zuzenbidea
Filologia eta Itzulpengintza
Geografia, Historia...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Administraritza
Merkataritza eta Marketing
Ostalaritza eta Turismoa
Zerbitzu soziokulturalak...

NATUR ETA OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Medikuntza
Erizaintza
Albaitaritza
Fisioterapeuta
Kimika
Matematika
Injinerutzak
Arkitektura...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Ingurumen kimika
Informatika
Osasungintza
Nekazal jarduerak...


Izenematea: Maiatzaren 2tik 10r



E-mail: txindokiorientazioa@euskalnet.net

k a l i t a t e z k o e s k a i n t z a

TEKNOLOGI BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Injinerutzak
Arkitektura
Fisika
Matematika...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Fabrikazio mekanikoa
Produktzio zerbitzua eta Mantenimendua.
Elektrizitate eta elektronika
Egurra eta altzariak
Automozioa...

ARTE BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Arte Ederrak
Ikus-entzunezko komunikazioa
Industri diseinuko injinerutza teknikoa
Publizitatea...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Irudia
Ikus-entzunezko ekoizpena
Diseinu eta ekoizpen editoriala
Altzari diseinua
Arropa diseinua...

ra. T e l f . 9 4 3 - 8 8 0 7 5 3



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK




BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

*San Prudentzio
jai zoriontsuak
denoi!*



AGURRA

Batzuentzako luze beste batzuei konturatu ere egin gabe, kontua, urtebete igaro dela, eta San Prudentzioak berriz ere ate joka ditugula.

Txikienak buru handien aurretik korrika, plazako musika, herri kiroleko aizkorakadak, edo sardina dastaketako usaia, berriz ere jai giro horren adierazle izango ditugu.

Ez da erraza, egun bizi dugun egoeran begiak itxi eta ezer gertatuko ez balitz bezala errealitateaz abstraitzea. Dena den, uste dut guztioi mesede egingo digula, une batez besterik ez bada ere, eguneroko hori ahazten saiatu eta festa giro horretan murgiltzea. Saia gaitezen beraz benetako jai giroa sortzen eta gozatzen.

Urtean zehar utzi gaituzten herritarrak eta, arrazoi ugari medio, gure artean izango ez ditugun lazkaotarrak ere gogoan izan nahi nituzke. Aldi berean nire eskerrik beroena agertu nahi nizueke festa hauetako egitaraua prestatu eta berau gauzatu ahal izateko zeuron denbora eskainiko duzuen guztiei.



Felix Urkola
Alkatea

Gora Lazkao, Gora San Prudentzio jaiak!



Liburuaren eguna

Kulturaldiak aurrera jarraitzen du

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak, Kutxa eta Euskadiko Kutxaren babesean, Dionisio Amundarainen omenezko kulturaldiak aurrera jarraitzen du, apirilaren 25era arte.

Apirilaren 23an, esaterako, Liburuaren Nazioarteko eguna ospatuko da azken urteotan bezala. Gerriko Liburudendaren aurreko aldean, liburu azokatxo egingo da. Liburuak kalera aterako dira eta liburuak %10eko beherapenarekin salduko dira.

Gainerako ekitaldien egitarau zehatza jarraian duzue:

Apirilak 19, ostirala:

14:30ean: Bat-bateko bertso-saioa eta antzerkia, Ikastolan.

20:00etan: 'San Adrian eta inguruen kondaira'. Xabier Azurmendi zenaren liburuaren berragitalpena, Udaletxeko Areto nagusian.

Apirilak 20, larunbata:

22:00etan: Burlatako Larratz Dantzari-taldearen 'Hamaika dantzetako lurra' dantza ikuskizuna, Kiroldegian.

Apirilak 22, astelehena:

19:00etan: Pello Zabalen 'Esaera zaharrak' hitzaldia, Kultur etxean.

Apirilak 23, asteartea:

11:00etan: Liburuaren Nazioarteko eguna dela eta, Gerriko liburudendak liburuak kalera aterako ditu eta %10eko deskontuarekin salduko ditu.

21:00etan: Antzerkia: Elena Irureta eta Aizpea Goenagaren 'Sketcha-ak'.

Apirilak 24, asteazkena:

15:00etan: Haurrentzat eta euskara ikasleentzat txotxongiloak: Enkarni Genuaren 'Itsasminen'. Maizpiden.



Dionisio Amundaraini omenaldia

Apirilaren 14an, omenaldia egin zitzaion Dionisio Amundaraini. Jende ugari gerturatu zen Lazkaora eta giro onean ospatu zuten eguna.

Meza nagusia, Donostiako Ereski abesbatzaren kontzertua eta ondoren bazkaria izan zen Maizpide euskaltegian. Goierriko bertsolariek eta trikitilariak alaitu zuten giroa.

Argazkian, Dionisio bere anai-arrebez inguratua ikusten da.

Apirilak 25, osteguna:

17:00etan: San Prudentziotako eranskailuaren aurkezpena, Gerriko Liburudendaren aurreko aldean.

Apirilaren 21a bitartean:

Ataungo zine-aretoan, Liam filma euskaraz ikusteko aukera izango da. Ordutegia: ostirala eta larunbatean, 22:00etan; igandean, 19:30ean. Sarrera: 2 euro.

ARTANO

Jai zoriontsuak denoi!



ARRANDEGIA

Uhaitz, 2 © 943 882 444 LAZKAO

LORENA

Jai zoriontsuak denoi!



ARRANDEGIA

Hirigoien, 18 © 943 88 5171 LAZKAO

Gaztelu

● Iturgintza

● Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN



AUTO ESKOLA

Ondo pasa festak!

Laister helbide berria!

Elosegi 19 LAZKAO

☎ 943 88 72 99

Lurreko jaiak

Apirilaren 28an eta 30ean eta maiatzaren 1ean, lurren, festa egunak izango dituzte. Egitaraua prest dagoeneko:

Apirilak 28, igandea:

Haurren eguna:

10:00etan: Goiz eresia txistulariekin.

11:30ean: Eskulan tailerra.

13:00etan: Haurrentzako bazkaria.

17:00etan: Adur pailazoen emanaldia.

20:00etan: Ardo eta txorizo banatzea herritar guztientzat, trikitixak alaiturik.

Apirilak 30, asteartea:

19:00etan: Kalejira, buhendi eta txistulariekin.

22:00etatik 03:00era: Musika.

01:00ean: Mozorro lehiaketa.

Maiatzak 1, asteazkena:

Jose Deuna Langilearen

eguna:

10:00etan: Txistularien goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Hamaiketako trikitixarekin.

17:00etan: Herri jolasak.

17:00etan: Mus txapelketa.

18:00etan: Toka txapelketa.

19:00etatik 23:00etara: Musika.

Extremadurara bidaia

65 urte baino gehiago dituzten pertsonentzat, eta lekua balego, pentsionistentzat, maiatzaren 3tik 7ra, Extremadura aldera 5 eguneko ibilaldia antolatu du Udalak. Izena lehenbailehen eman behar da, goizeko 9etatik 1era, 943 881232 telefono zenbakira deituz.

Ostatua Meridako Nova Rooma hotelean izango da. Plasencia, Caceres, Trujillo, Guadalupe, Badajoz, Elvas, Olivenza, Merida, Salamanca... bisitatuko dira.

Bidaiaaren prezioa: jubilatuek 220 euro eta pentsionistek 232 euro.

Bidaia honen helburua, adineko pertsonak elkarrekin leku berriak ezagutzea denez, plazak adinaren arabera banatuko dira. Bikoteen kasuan, adin handiena kontuan izango da.

Komunitateen jaialdia

Apirilaren 14an, herriko komunitateen arteko eguna ospatu zen. Kultur eta ohitura desberdinen nahasketaren erakusleku izan zen. Herrialde ezberdinetako janari eta folkloreaz gozatzeko aukera izan zen. Alma Navarra taldea, Extremadurako La Bellota taldea, Galiziako gaitajoleak, Burgosko dantza taldea eta nola ez, Euskal Herriko dantza taldea izan ziren.

Aurtengo protagonista Gaztela-Leongo komunitatea izan da. Parte hartzaileak jantzi tipikoekin apaindu ziren, bertako gastronomia ezagutzera eman eta leku interesgarriak, txokoak eta beraien arteko giro ona erakutsi zituzten.

Urkia auzoko jaiak, maiatzaren 3tik 5era

Maiatzak 3, ostirala:

Gurutze Deunaren eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Hamaiketako, Olarte Anaiak trikitilariak alaiturik.

19:00etan: Suziri jaurtiketa festak hasteko.

19:00etan: Erromeria Olarte Anaiak trikitilariak.

21:00etan: Afaria elkarteak.

Maiatzak 4, larunbata:

21:00etan: Lagunarteko afaria elkarteak.

23:00etan: Erromeria Epelde eta Larrañaga trikitilariak, goizaldera arte.

24:00etan: Emakumezkoen Toka txapelketa.

Maiatzak 5, igandea:

10:00etan: Meza Nagusia.

11:00etan: Hamaiketako,

Epelde eta Larrañaga trikitilariak alaiturik.

14:30ean: Bazkaria.

19:00etan: XX. gizonezkoen Toka txapelketa.

20:00etan: Erromeria Epelde eta Larrañaga trikitilariak alaiturik.

Ostiraleko eta larunbateko afarira, edo igandeko bazkarrera joateko, maiatzak 1 baino lehen eman behar da izena: 943888418.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27



BEASAIN

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

**Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak**

...



**Pintura
Teilatuak
Tximiniak**

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

ileapaindegia

Z U T E

943 67 14 27
Santa Clara 8 Tolosa

Afro permanenteak

Extensioak

Rastak

Makilajeak

Azken korteak

Era guztietako koloreak

Ordutegia: Asteartetik ostiralera: 10:00 - 18:00
Larunbatetan: 9:00 - 14:00

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan



TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza
barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatueta.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.



Izen ematea:
maiatzaren 1etik 24 arte.

J.M. Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara Bidea z/g.

Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403

E-posta: jmiparragirre@edunet.es

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



© 616 921 502 ©

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN


Aparteko jendetza eta Zubeldia nagusi bertso finalean

Indartsu ekin zitzaion lehenengo larunbatean kultur asteari. Bertsolari gazteek izugarritzko jakinmina sortzen dutela garbi geratu zen Osinalde sariketan. Sekula baino entzule gehiago hurbildu zen sozidadera, bai afaltzera, bai ondoren saioa entzutera, elkartea txiki geratzeraino.

Aurkezle eta gai jartzen Jokin Muruak jardun zuen, lehenengo aldiz aitari erreleboa hartuta. Bere aginduetara honako sei bertsolariak ziotuen: Estitxu Eizagirre hernaniarra, Jokin Uranga azpeitiarra, Etxahun Lekue berriatuarra, Iker Zubeldia zegamarra, Iñigo Izagirre itziartarra eta Iñaki Gurrutxaga oriotarra.

Bertso saioaren kalitateari dagokionez *"maila politean ibili dira, baina batzuk ez dute zezaketen guztia ateratzetik izan"*, argitu digu Iñaki Murua antolatzaileetako batek.

Antolatzaileak azkenean gustura geratu ziren 31. edizio honekin. *"Saioa ona izan da, maila altukoa"*, iritzi horixe nagusi denen artean. Herriko gazte talde bat ibili zen gaiak ipintzen, eta horretan ere asmatu dela iruditzen zaio Muruari, *"gaiak ondo zeuden jarriak, bai bakarkakoak eta baita ofiziotakoak ere; agian koplatako ariketa hilagoa suertatu da, ez baitute erdiz erdi jo"*. Hala ere entzuleen



jokaera goraipatu nahi izan dute, *"gazte asko etorri da, guztiak saioari adi-adi egon dira, eta bozgorailurik egon ez arren kantatu bitartean entzuleen isiltasunak eta errespetuak txaloak merezi ditu"*.

Epaile lanetan Eusebio Igartzabal, Mikel Mendizabal, Migel Agirre, Nikolas Zeberio eta Jexux Mari Jauregi 'Altzo Txiki' boskotea aritu zen. Hauen irudiko Iker

Zubeldiak merezi izan zuen lehenengo saria, eta herritarrek emandako hautuarekin bat etorri zen erabakia, gainera. Zegamar-beasaindarrak bigarren aldiz parte hartzen zuen finalean. Irabazlearen lanaz galdetuta *"freskoena bera ibili da, txispa eta umorea behin eta berriro atera ditu"*, nabarmendu du Muruak.

Aimar Maiz

Labur-labur



● **Argazki lehiaketan** Blanca Lopezentzat izan da lehenengo saria. 2. Ane Miren Aizpuru geratu da eta 3. Iñaki Maiz. Orotara hamaika bilduma aurkeztu dira.

● **Mendi irteera** dago iragarrita datorren apirilaren 21erako. Lizarragatik Urbasara izango da ibilaldia, egun osokoa. Autobusa jarri da (943 886355).

● Osinalde sariketako **errifan zenbaki sarituak**: 1. saria 1483arentzat eta 2. 1486arentzat.

● **"Makilari" aldizkaria kalean da**. Hamahirugarren alea den hau aurreko astean zabaldu zen etxeetara. Kanpoan bizi diren gabiriarrak ere eskuratu ahal izango dute Udaletxean edota tabernetan.

● Lehenengo igandean **bataio anitza** izan zen herriko elizan. Gutxitan bezala hiru haur bataiatu ziren batera: Bittor Aizpuru, Andrea Arrondo eta Mikel Garmendia.

Pilota txapelketako finalak

Apirilaren 6ko arratsaldean jokatu ziren III. Pilota Topaketako finalak, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailatan. Txapelketan zehar 68 pilotarik parte hartu dute, Ormaiztegi, Zumarraga, Urretxu eta Gabiriako pilota-eskoletakoak. Azken jardunaldia ikusteko asmoz ikusle ugari joan zen frontoira. Herriko gaztetxoek bi mailatan txapeldun eta beste batean txapeldunorde egin zuten Hona emaitzak: **Benjaminak**: Iban Maiz - Eñaut Asurabarrena (Gabiria) 18, Danel Martinez - Xabi Urzelai (Zumarraga) 16. **Alebinak**: Endika Igartzabal - Iñigo Murua (Gabiria) 18, Iker Larrañaga - Ander Quina (Zumarraga) 13. **Infantilak**: Eneko Igartua - Xabier Dominguez (Urretxu) 18, Gorka Maiz - Mikel Asurabarrena (Gabiria) 9. **Kadeteak**: Juan Alvarez - Iñigo Etxaniz (Zumarraga) 18, Iñaki Mendizabal - Egoitz Berasategi (Ormaiztegi) 15.

Herri eskolako antzerki emanaldiak

Apirilaren 13an Gabirian bertan estrenatu zuten "Kaixo, zer moduz! Lapurketa arraroa" antzezlanaren Balentzategi herri eskolako ikasleek. Urtero egin ohi duten bezala, antzerki saioak eskainiko dituzte beste bi herritan, apirilaren 16an Bidegoianen eta Lazkaoko Maizpiden ere aritzekoak dira.

Mediku kontsultan ordutegi aldaketa

Aurrerantzean mediku-etxera joateko ordutegia beste bat izango dela jakinarazi du Virginia Ruiz de Eginog sendagileak. Herriko kontsulta goizeko 9etatik 9:45era egongo da irekirik, eta Santa Lutzikoa 10etatik 12etara (asteazkenetan 9etatik aurrera). Aurrez txanda hartu beharko da, eta telefonoa aldatu egin dute: Zumarragako anbulatoriora deitu behar da bezperan goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak bitartean edo egunean bertan 8etatik 8:55era (943 035220).

Mendi irteerak gaztetxoentzat

Euskal Herriko mendi eta inguruneak ezagutzeko herriko gaztetxoek duten aukeraren berri izan genuen duela gutxi. Berria sakontzearen eta, zuei informazio ahalik eta zehatzena eskaintzearen, Pako Urrestarazu, Kirol arduradunarengana jotzea erabaki genuen.

Hasiera-hasieratik garbi utzi nahi izan zigun Pakok hau ez dela JM. Barandiaran ikastetxearen ekimena. *"Nik kurtso hasieran, urtero gurasoekin bilera egiten dut. Bilerak horretan planteatzen da, besteak beste, hilean behin edo, hurrekin mendira irteerak egiteko aukera"*, baina arduradunak gurasoek izan behar dutenez eta inor prest agertu ez zenez, *"ekintza hau Loinazpe-Ataunen izenean egiten da, Loinazpek ematen ditu horretarako dirulaguntzak"*. Dirudienez gainera, ekintza hau abian jartzea gaztetxo talde baten ekimena izan zen eta, Pakoren laguntzaz, beraiek arduratu ziren arduradunak aurkitzeaz, Mikel Eiguren eta Ekain Sukia.

Urteko lehen sei hilabeteotarako egindako egitarauaren barne Txindoki, Gorbea, Anboto, Sandomato, Aratz eta Orhi mendira irteerak antolatu ziren. *"Oraingo Txindokira bakarrik irten gara"*, diosku Mikel Eigurenek, izan ere, ez omen da erraza guztiak libre egongo diren igande goizik aurkitzea.

Esan behar baita, nahiz eta parte hartze irekia izan, 10-12 neskako talde finko bat bade-la, Loinazpe eta Lazkaoko San Benito ikastolako ikasleak guztiak, eta horien *"baitan"* dago, hein batean, irteerak egitea. Dena den, oraindik ere irteerak egiteko asmoa badutela esan digu Mikelek. Beraz, eta bereziki 12-16 urte arteko gaztetxoak eta, natura eta ingurumena ezagutzeko gogoia eta jakinmina duzuenok, jakin ezazue irteera San Martingo plazatik izango dela igandetan, goizeko 8-8,30 aldera. Irteerak noiz izango diren zehazki jakiteko, arduradunarekin hitz egin dezakezue.

Ataundarrok Zuberoarekin bat elkarlanean

Udalbiltzak ataundarrok 'Zuberoarekin Bat Auzolanean' kanpainan parte hartzeko deialdia egin du. 'Xiberoa Garatzen' lan taldea sortu berri da herrian eta hurrengo egunetan ataundarron ekarpenak jasotzeko ekingo dio. Horrela, egunotarako kanpainaren aurkezpena egingo da herriko hiru auzoetan. Apirilaren 22an, astelehena, Aiako Haitzarri elkartean, iluntzeko 8etan; asteartean, apirilak 23, San Martingo Oargi elkartean, iluntzeko 8etan; asteazkenean, apirilak 24, San Gregorioko San Gregorio elkargunean.

Izan ere, Zuberoak bizi duen egoera larria da. Azken mendean 10.000 biztanle galdu ditu Zuberoak, horietarik 2.000 azken hamarkadan. Eta ezer egiten ez bada, aurreikusita dago 2010 urterako beste bi mila biztanle galduko direla. Egoera honengatik arduratuta, azken urtean, Zuberoako 35 udalerriak bildu eta egoeraren inguruko hausnarketa egin dute. Horren emaitza da datozen egunotan herrian aurkeztuko den 'Xiberoa 2010' garapen proposamena. Egitasmo hori gauzatzeko, eta Goierritarraren 218. alean aditzera ematen zen legez, 1.000.000 euro bildu nahi dira. Beraz, eta zure diru laguntza eman nahi baduzu, hona hemen Kutxako kontu korrante zenbakia: 21010030940011217866.



Dioni Galparsoro garaile

Garaipen garrantzitsua izan zen, dudarik gabe, Dioni Galparsorok Eibarren, XXXI. Memorial Balentziaga lasterketa prestigio-tsuan, lortu zuena joan zen igandean. 23 urteko Caja Ruraleko ataundarrarentzat profesionaletara pasatzeko aukerak gehitzen ditu Eibarren egindakoak.

Labur-labur

● **'Liam' filma euskaraz.** Lazkaoko herriak Dionisio Amuridarainen omenez antolatu Kulturaldiaren barne programatutako 'Liam' filma, Ataungo Herri Antzokian eskainiko da. Euskarazko filme hau ikusteko aukera ostegunetan honetan hasi, apirilak 18 eta, iganderarte, apirilak 21, ostirala eta larunbata barne, izango da. Ordutegia ohikoa izango da.

● Azken asteotan izan dugu Jexuxa Altolagirre eta Inazio Goioetxearen heriotzaren berri. Doluminak sendiei.

Gipuzkoako Eskolarteko pilota txapelketa

Joan den larunbatean, apirilak 13, hasi eta datozen bi larunbateetan, Ataungo Auzoeta kiroldegian jokatu dira Gipuzkoako Eskolarteko Pilota txapelketako partiduak. Larunbat honetan, apirilak 20, finalerdiko partiduak jokatu dira eta apirilaren 27an finala izango da. Joan den larunbatean jokatu partiduetan klasifikatutako pilotariak, datorrengoan elkar ikusiko dute. Hauek dira, besteak beste, jokatu dutenak:

Mutil alebinetan: 1. Aduna-Txingudi; 2. Xabier Munibe (Azpeiti)-JM. Barandiaran.

Mutil infantiletan: 3. Loinazpe-Gabiri Usurbilen aurka. 4. Santo Tomas Lizeoa-La Salle (Zarautz).

Esan behar da nesken arteko partiduak ere jokatu dira baina, hau argitaratzeko momentuan ez genuen informazio eskuragarririk. Tamainako ikuskizuna egunero ikusten ez denez eta, herritarrak ere tartean direnez, deialdi berezia egin nahi zaigu ataundarroi, datozen bi larunbatetan gure presentziaz Kiroldegia eta pilotariak anima ditzagun. Partiduak arratsaldeko 5etan hasiko dira.

Agurtzane Bikuña

Ertaroko azoka maiatzeko lehen asteburuan

Maiatza etortzearekin batera, ospatuko da aurtengo bigarren azoka berezia: Ertaroko azoka. Aldizkaria bukatzen ari ginela ezin izan genuen egitarau zehatza jaso. Baina ohi bezala, produktu ezberdinek salgai izango dira, guztia ere ertaroko giroan murgildurik. Ohi bezala, larunbat gauean, ertaroko afaria izango da.

Artzain eguneko eguneko sariak

Urteko lehen peri berezian,

artzantzari lotutako perian, ardi, ahari, gazta, ile mozketa eta abarrez gain euria izan genuen protagonista. Idiazabal gaztaren denboraldiari hasiera ofiziala eman zitzaion udal txean eta era berean hainbat sari banatu ziren artzain eta baserritarren artean. Jarraian sarituak: ardi eta ahariei dagokienez, muturgorrietan Pako Lertxundu amezketarra, Ignacio Aranguren azpeitiarra eta Ignacio Artano amezketarra izan ziren lehen saria jaso zutenak. Muturbeltzetan, berriz, Luis Katarain idiazabal



Gonzalo Antonek, Alaveseko lehendakariak, ebaki zuen gazta.

baldarra eta Juan Jose Urdangarin beasaindarra. Ekoizpenaren araberrako aharietan Jose Manuel Zalakain oiartzuarra, Nikolas Segurola oñatiarra eta Amelia Jauregi gabiriarrarentzat izan ziren sariak muturgorrietan eta muturbeltzetan Jose Ramon Arsuaga ordiziarra, Pedro Gabiria legazpiarra eta Victoriano Urrestarazu idiazabaldararentzat.

Aurkeztutako ardien errapeak kontuan hartuz gero Amelia Jauregi gabiriarra eta Nikolas Segurola oñatiarra jaso zituzten sariak. Asteazkeneroko baserritarren artean Edurde Jauregi baliarraindarrak jaso zuen lehen saria, bigarrena Anttoni Murgiondo gabiriarrak eta hirugarrena M^a Jesus Mujika baliarraindarrak eta Jesus Artola anoe-tarrak.

Altamirako dorrea

26 urteko hika-miken ondoren Lazkaomendi Kaleko 11 zenbakidun atarikoak gustora dira "Altamirako horma" bezala eza-guna egin den afera amaitu delako. Orain 26 urte hormaren zati handi bat erori eta harrezkero hor ibili dira epaitegiz epaitegi. Azkenik bizilagunen aldeko erantzuna jaso eta berritze lanak egin ziren orain bi urte. Gauzak honela, gustura dira Lazkaomendi 11ko bizilagunak.

Pilotalekua itxita

Haizerik ez da sartuko baina ezta orain arte bezala ordaindu gabe Beti Alai pilotalekua erabili nahi zuen edonor. Behar ez bezala erabiltzen zenaren aitzakiaz Kirol patronatoak ixtea erabaki eta orain, pilotalekua erabili nahi duenak Majori Kiroldegian eskatu beharko du giltza. Era berean, ordaindu egin beharko du eta argia pizteko fitxak ere Kiroldegian eskatu. Erabaki honek ez ditu erabat gustora utzi herritarrak, gazte eta ume askoren jolasleku baita pilotalekua eta erabaki honek beste leku batzuk erabiltzea behartzen baitu.

Rugbykoak aurrera

Igoera faseko lehen arerioa mendean hartuta gertuago dago orain ohorezko "b" maila. Valentziako Les Abelles taldea egokitu zitzairen lehen oztopo gisa eta uste baina errazago lortu dute aurrera egitea. Apirilaren 7an joan ziren Valentziara eta bertan ederki bideratu zuten kanporaketa 15-54ko emaitzarekin. Gauzak honela, itzulikoa joandako larunbatean jokatu zuten eta oraingoan ere aise nagusitu ziren ordiziarrek.

Oraingoan Sevillako Ines Rosales hartu beharko dute mendean, igande honetan bertan Trebijanon eta 28an Andaluzia aldera jo beharko dute. Irabaziz gero igoera eskuratuko lukete rugbyariak.



Krosean bikain

Eñaut Insausti, Ander Biguri, Mikel Matxain, Iker Sanchez eta Nahikari Miguelez ikasleak Espainiako eskolarteko kros txapelketan izan genituen joaneko martxoaren 17an. Gijon aldean jokatu zen proban Oianguren Institutuko 4 mutiko infantilek lan txukuna egin eta sailkapeneko 6. postua eskuratu zuten. Kontuan izan behar dugu laukote hau dela egungo Euskadiko Txapelduna. Era berean, Jakintza Ikastolako Nahikari Miguelezek 57. postuan amaitu zuen, honek ere lasterketa ona eginez. Argazkian 5 ikasle ordiziarrek Altamira Stadium-ean.

Aitor Calvillo

Udaberri Gaztea

Loquilloren kontzertua izango da

arratsaldeko 3,30etan hasitako.

VI. Udaberri Gaztea ospatuko da apirilaren 20 eta 27an. Udalak finantzaturako ekimen da. 1998an antolatu zuten lehen aldiz eta urtero jaso dute dirulaguntza Diputaziotik aurtur izan ezik. Gaizki ulertzeren bat egon dela pentsatu nahi dute, eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzen baitituzte. Dena den, gazteei zuzenduriko ekitaldiak antolatzen jarraitzeko gogotsu agertu dira eta datorren urte-tik aurrera dirulaguntza berriz ere jasoko dutenaren esperantzaz.

2002ko Udaberri Gaztea,

ekitaldi desberdinek osatuko dute eta asteburuan burutuko dira, gazteei zuzenduriko egitaraua denez, beasaindarrez gain inguruko gazteak ere errazago hurbil daitezten.

Apirilak 20

● Gazteenkana: 14 urtetik 29 urte bitarteko gazteei zuzenduriko joko izaerako herri Olinpiada da. 8 frogar burutu beharko dituzte; eskalada, arku tiroketa, surf, karretila lasterketa, txirrinduen lasterketa, motordun skate, sokatira eta bufalo mekanikoa. Antzizar Kiroldagian izango da

● Kale antzerkia: Gaueko 00:00etatik aurrera Goloka Antzerki Taldea Bideluze plazan izango da 'Eskeletoak' lana antzeztuz. Ordubeteko iraupena izango du eta inguruan dabilen jendeak izango du parte hartzeko aukera.

Apirilak 27

● Erakusketa: Txindoki Institutuko ikasleen lanak ikusgai jarriko dituzte Usurbe erakusketa aretoan.

● Kotxe klasikoaren kontzentrazioa: Gernika Pasealekuan 19:00etatik aurrera.



● Makrokonzertua: 'Loquillo y trogloditas' taldeak disko berria aurkeztuko du kontzertu honetan. 'Dogma de fe' beasaindarrek eta 'Rhune' Irundarrak ere kontzertu honetan izango ditugu. Antzizar Kiroldagian 22:30etatik aurrera izango da beraiek entzuteko aukera. Aipagarria da sarrera dohainekoa izango dela.

Apirileko Feria

Apirilaren 27 eta 28an opatuko da apirileko feria Beasainen. Gure kaleak Andaluziako giroaz apin-duko dituzte. **Apirilaren 27an**, eguerdiko 13:00etan zaldien ibilaldia izango da San Inazio eta Esteban Lasa kaleetan.

● Dantza eta kantu saioa. Ostadar, 'Al-Andalus' eta 'Sueños de Andalucía' taldeen eskutik eguerdi partean.

● Arratsaldeko 18:00etatik aurrera ere San Martin plazan ikusteko aukera izango da. Venenciador delakoaren erakusketa ere bertan izango da.

● Rocio erako meza. Andre Mari Zeruratuaren parrokiaren, Rocio erako meza entzuteko aukera izango da 'Al-Andalus' taldearekin 20:00etatik aurrera.

● Musika jaialdia. 'Alegria de la Sierra' taldearekin musika jaialdia Loinazko San Martin plazan 23:00etatik aurrera.

Apirilaren 28an

● Dantza eta musika saioak: Beasaingo Monika Narbaizaren 'Aguamarina' eta Hondarribiko Karlos eta Mertxeren 'Marea Brava' dantza taldeen saioa ikusi ahal izango da eguerdiko 13:00etan Loinazko San Martin plazan. Hondarribikoek beste saio bat egingo dute arratsaldeko 17:00etan toki berberan.

Arrasateko 'Alegria de la Sierra' musika taldeak arratsaldeko 18:00etan abestuko du Loinazko San Martin plazan. Feriari amaiera gaueko 22:00etan emango zaio Sevillar eta jai giroarekin.

Garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dirulaguntzak

Udaleko Gizarte-Ongizate batzordeak bultzaturik emango dira garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dirulaguntzak. Garatze bidean dauden herrietan egiten diren lankidetzar jardueretan gazte beasaindarrek parte har dezaten lagunduko da beka bidez. Elkartasun balorea indartu eta aldi berean gure herriari lurralde horien egoera gazteen bidez ezagutaraztea da helburua. 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendua dago.

Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Hauentzat ere izango da dirulaguntzarik. Gipuzkoan kokaturako Gobernuz Kanpoko Erakundeek eta batez ere Beasainekin lotura dutenek, lehentasuna izango dute. Informazio gehiago Gizarte-Ongizate Sailean duzue.

Betimu Beasainen

Euskal Telebistako Betimu Beasainen izan da aste honetan saioa grabatzen. Alkartasuna Lizeoa, Beasaingo Ikastola, La Salle, Loinazpe eta Murumendi ikastetxeetako 60 gazte hartu dute parte lehiaketar musikar arrakastatsu honetan. Grabaturako bost saioak apirilaren 22tik 26ra emango dituzte ETB 1an arratsaldeko 19:45an.

38. Argazki Lehiaketa Beasaingo Saria

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkartek antolatua da. Gaia librea da eta nahi duten eta lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek dute parte hartzeko aukera. Zuri-beltzean eta koloretan bost argazki egile bakoitzeko aurkeztu behar dira. Gehie-nez ere 30 x 40 zm.ko kartoiez sendotuta. Lanak jasotzeko azken eguna apirilaren 24a izango da Aizkorri edo Argizpi Elkartearen.

Nekane Altuna



Txirrindularitzan zegamarrak garaile

Joan den asteburua bikaina izan da zegamar txirrindularientzat eta baita zegamarrontzat ere, izan ere herrian giro berezia bizi baita Ruben Zabaleta eta Aitor Perezen garaipenei esker.

Larunbatean, apirilaren 13an, Zegamako Elkartu Nahi Txirrindulari Elkarteak antolatutako, 1. eta 2. urteko kadeteen mailako txirrindularientzat, XVIII. Santa Kruz Froga burutu zen Zegaman, eta bertan garaile izan genuen Ruben Zabaleta (Loinaz S.C.- Urrutia Intersport) zegamarra. Karrera horretan Oier Arkonada (Loinaz S.C.- Urrutia Intersport) zegamarrak ere parte hartu zuen eta

honek 14. postua lortu zuen. Bigarren berriz, Unai Aran-zabalek (Lokatza G.H.E.) egin zuen. Froga hau irabazi zuen azken zegamarra Inaxio Arrieta izan zen, honek 1984an, Migel Indurainekin batera iritsi zen azken metro-etara eta Iñaxio Arrietak es-prinean irabazi zion Migeli.

Aitor Perez Arrietak (Caja Rural) ere denboraldi bikaina darama afizionatuen mailan eta asteburu honetan bi froga irabazi ditu. Larunbatean, Ororbiako Froga irabazi zuen eta igandean, berriz, Beasain-go Loinaz Froga, (aurtegoa 75.a).

Bestalde, Aritz Irastorzak



Zegama-Aizkorri mendi maratoia

Datorren uztailaren 7an, Aizkorriko Lagunen III. Eguna eta Zegama-Aizkorri mendi maratoia uztartuko dira egun berean. Orain arte bezala, Aizkorriko Lagunen Eguna burutuko da Zegaman eta bakoitzak bere neurriko ibilbidea aukera dezake. Apeaderotik, San Adrian aldera. Zegamatik Aizkorriko puntara edota Mendi Maratoian parte hartuz, Aizkorralde guztia buelta eta gora behera bikainak egiteko aukera izango dugu bertaratutako guztiok.

Zegama- Aizkorri Mendi Maratoia, Euskadiko Koparako puntuagarria izango da, beste bi maratoirekin batera eta esan, mendi maratoietan dabilen korrikalaririk onenak bertan izango ditugula. Bertan izena emateko 943 801351 telefonora deitza beharrezkoa da.

ere jubenilen mailan parte hartu zuen Deban eta zazpi-

garren postua lortu zuen.

Eduarne Albizu

Xabier Azurmendiren liburuaren aurkezpena

Gaur, Xabier Azurmedi zenaren San Adrian eta inguruen kon-dairaren II. argitalpenaren aurkezpena egingo da, iluntzeko 8etan Lazkaoko Udaletxean. Gerriko Ikerlan Sariketara 1996. urtean aurkeztu zuen Xabier Azurmendi zenak, berak idatzitako liburuxka hau eta zoritxarrez, inprentan zegoela zendu zitzaigun. Berak liburu hau idazteko datu bilketa hainbat artxiboeta-ko paperak irakurritik eta Zegamako ahozko literaturan San Adriani eta bere inguruko gertakizunei buruz belau-

naldi kontatzen zena jasoz egin zuen. Bere lan ikaragarriaz jabetuak gaude zegamarrok eta ingukoak ere, bestela nolatan bada saldu ziren liburuaren lehen edizioako aleak argitaratu bezain laster?. Udaletxera jende ugari gerturatu da liburu honen bila baina, agortua zegoenez ezin izan da nahi eta Xabierrek merezi adina zabaldu berak bildu zuen altxor hau. Behar honen aurrean, Gerriko Ikerlan Sariketako arduradunekin harremanetan jarri ondoren II: argitalpen hau bultzatu zuen Zegamako Udalak elkarren lankidetzan; beraz, libururik gabe geratu zenak, jakin beza, Zegamako Udaletxean salgai izango duela laster.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

SILVIA CASASAYAS
ODONTOLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberría Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.


Segurako Erosle, **Idiazabal** go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



Santa Engrazi ermita eta bertako sakristaua, Joxe Manuel Ormazabal.

Hazi bedeinkatzea apirilaren 21ean

Santuaren eguna apirilaren 16an bada ere, 21ean ospatuko da Santa Engrazi ermitako hazi bedeinkapena. Soro-bartzetan ereiteko haziak 12:00etan auzoan hildakoen alde emango den mezaren aurretik bedeinkatuko dira. Mezaren ondoren hamaiketakoa



Piñangoko bolatokian, Antonio eta Luis bola jarraitzen.

Venezuelan txapeldun

Antonio Agirre herritarra eta Luis Aizpeolea zeraindarrak beste sei eibartarrekin osatutako bolari taldea txapeldun geratu da Venezuelako Piñango herrian, herri arteko I. bola torneo irabazi ondoren. Guztira, 8 laguneko 8 taldek parte hartu zuten. Venezuelen hirutxirlo erara jokatzeko da (bola askoz ere pisu txikiagoa da eta 3 birla dituzte botatzeko bakoitzak puntuazio ezberdina izanik). Txapelketako bolari onenaren saria Luis Aizpeoleak irabazi zuen.

Joxe Insaustiren liburuaren aurkezpena, gaur

1000ren bat bertso idatzi, hainbat azalpen eta argazkiekin, Auspoa etxeak 'Beti bertsoa buruan' izenburupean kaleratu duen Aizkoeta berriko Joxe Insaustiren liburuaren aurkezpen ofiziala burutuko da gaur, apirilak 19, udaletxean. Liburuan, bere inguruko eta herriko 80ren bat gai eta pasadizo ezberdin ageri dira.

Aurkezpena, 19:00etan hasiko da herriko txistulariek egingo dioten harrerarekin. Ekitaldia, Joxe Mari Iriondok zuzenduko du eta bertan izango dira besteak beste, Joxe Lizaso, Jon Azpillaga, Bittor Agirre, Txomin Garmendia, Xabier Amuriza, Pedro Etxezarreta, Aita Zavala eta Joakin Berasategi (Sendoako zuzendaria). Ondoren, lagunarteko afaria izango dute Txoritegi elkartean.

Udalak, Joxe Insaustiren liburua familia bakoitzari etxeko etxe banatuko dio. Aurrerago liburuari buruzko informazio sakonagoa eskainiko du Goierritarra aldizkariak.



Joxe Insausti 15 urtetatik aritu da bertsoak idazten. Liburuko azkenak biloba jaio berriei jarriak dira.

(udalaren laguntzaz) eskainiko dute Santa Engrazitarrek.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Infantilak: Aizkorri 6-2 Anaitasuna. **Kadeteak:** Idiazabal 3-3 Aizkorri. **Jubenilak:** Segura 3-0 Zestoa. **Errejonialak:** Zestoa 1-3 Segura.

Asteburuan etxean: Errejonialak: Segura-Intxurre, zapatuan, 17:00etan.

Labur-labur

● **Bola Seguran.** Gipuzkoako erregularitate txapelketako 12. eta azken saioa apirilaren 21ean, 9:30etik 11:00etara eta 16:30etik 17:30era.

● **Gipuzkoako herri arteko txapelketa** datorren astean hasiko da. Seguratik, gazte-txoetan Mikel Garziandiak eta Asier Izetak jokatu dute, gazteetan Enetz Olanok eta Garikoitz Oiarbidek eta nagusietan Egoitz Berasategik eta Ibon Etxeberriak.

● **Errealarekin Valladolidera.** Txanbolinpe peñak autobusa antolatu du maiatzaren 5eko partidurako. Informazio gehiago Eustakio Telleriak.

● **Iparra-Hegoa errifa sari-tuak:** 1968 (apirilak 10), 8478 (apirilak 11), 2213 (apirilak 12).

● **Kirol eskolarra.** Adarrara mendi irteera apirilaren 21ean, 8:30ean plazaatik.

● **Iparra-Hegoa IV. margo txapelketa.** 1. saria: Jose Reyes (Leioa). 2. saria: Jose Ignazio Treku (Deba). 3. saria: Piedad Santamaria (Leioa). Aipamen berezia: Julio Gomez (Leioa). 27 lagunek parte hartu zuten, horien artean, Ainara Goenaga eta Miren Gallastegi herritarra. Pintura lanak tabernetan jarriko dira ikusgai eta salgai.

Joseba Telleria

Santakruzak beheko barrioan

Txirindulari proba arratsaldean izango da

● **Maiatzaren 3an,** Santa Kruz eguna. Meza, iluntzean auzoan hildakoen alde Beheko kurutzan. Ondoren, mokadutxo udalaren laguntzaz. Auzo afaria, bolalekutik beherako bizilagunentzat. 21:00etan Zopajalen. Izenak aurrez eman behar dira Jermanenen.

● **Maiatzaren 5a:** XXVIII. Gurutze Deunaren txirindulari proba. Segurako Txirindulari elkarteak antolatuta, Jabier Ormazabalen oroimenez, jubilenen Gipuzkoako txapelketa korrituko da. Arratsaldean izango da, 16:00etan Jermanenetik itenda, 18:26 aldera amaituko da leku berean. Ondoren, herritarren arteko toka txapelketa Jermanene aurrean. Trofeo bana izango da lehen emakumezko eta gizonezkoentzat.

Dantzari Txiki Eguna, igandean



Igande honetan, hilak 19, Dantzari Txiki Egunaren XII. edizioa izango da gurean. Izutueta dantza taldeak eta Udalak elkarlanean antolaturiko egun honetan zazpi dantza taldek hartuko dute: Jakintza (Ordizia), Oin-arin (Lazkao), Aurtzaka (Beasain), Ereintza (Erresteria), Gure Txokoa (Bera), Legorreta (Legorreta) eta Izutueta (Zaldibia). Goizeko 11.00ak aldera dantza taldeak herriko plazan elkartuko dira eta dantzari guztiei haurrentakoa eskainiko zaie. 12.00etan, dantzarien desfilea izango da kalean zehar. Ordu honetan, 12.00etatik 13.00tara alegia, kalea itxita egongo da kotxeentzat. Desfilea amaitu ondoren, dantza jaialdia egingo da herriko plazan eta 14.00etan bazkaria

izango dute hurrek Izutueta Dantza Taldeko hurren etxeetan. Arratsaldean, 16.30ak aldera, "Zenbat Gara" elkarrekin "Morgan pirata gaiztoa lapurretan" ikuskizuna antzeztuko du.

Saturdiko festagatik eskerrak

Zaldibiako Udalak pazko bigarrenegun Saturdin egin zen festan lanean aritu zirenen guztiei eskerrak eman nahi dizkizue: festa antolatzen, tabernan eta bazkari banatzen, hurrek jokoak antolatzen...

Kutxaren bitartez antolaturiko ekitaldiak

Maiatzak 3, ostirala: Javier Arrilagaren kontzertua gaueko 22.15ean, Antzokian.

Maiatzak 24, ostirala: Angel Cuerdoren diapositiba emanaldia gaueko 22.00etan, Kultur Etxean.

Ekainak 21, ostirala: "Ondo esan beharko" antzerki saioa gaueko 22.30ean, Antzokian.

Gazte taldearen logotipo lehiaketa

Eñaut Hernandez gaztea izan zen martxoaren 16an aukeratu zen Zaldibiako Gazte Taldearen logotipo lehiaketaren irabazlea. "Gazte mugi hadi!" leloari erantzuten dio irudiak eta hemendik aurrera hauxe izango da ZGTren nortasun agiria. Hala ere, antolatzaileek diotenez, ez da behin betikoa izango.

Bi langile kontratatzeko deialdia

Udal zerbitzuetako peoi lanak egiteko bi langile kontratatatzeko deialdia zabaldu berri du Udalak. Sei hilabeteko kontratua izango da lanaldi osorako. Bete beharreko baldintzen artean herrian errol-datua egotea, langabezia apuntatuta egotea eta ahozko mailan euskaraz jakitea daude. Izena emateko epea zabalik dago eta epea hilaren 26an amaituko da.

Etkez etxeko zerbitzuetako lan poltsa

Etkez etxeko zerbitzua jasotzen duten ezinduei laguntza pertsonala eta etxeko lanetan laguntza eskaintzeko lan poltsan izena emateko epea zabaldu du Udalak. Beharren arabera lanaldia izango dute lan poltsan izena ematen dutenek. Bete beharreko baldintzen artean lanpostuari dagokion perfilerako egokitasuna edukitzea dago eta aukeraketa oposaketa bidez egingo da. Izena emateko epea hilaren 26an amaituko da.

*Inaki Gurrutxaga
Saraai Jauregi*

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Iñauti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041



GESTORIA Biok
Errenta
aitorpenak
egiten dira

Goierri, 12
behea
ORDIZIA

☎ 943 88 44 00
☎ 943 88 12 58

Jabier Muruamendiarazek Lazkaoko martxa konposatu du

Hainbat urtetan abesbatza zuzendari eta txistulari lanetan aritua da, Jabier Muruamendiaraz lazkaotarra. Orain konposatzeari ekin dio eta Lazkaoko martxa osatu du herriko danborradan jo ahal izateko. Aurtengo jaietan, San Prudentzio egunez, apirilak 28, arratsaldeko 6,30etan estreinatuko da.

Orain dela 16 urte danborrada antolatzen hasi ziren Lazkaon eta bertako martxarik ez zegoenez, betiko danborrada doinuak jotzen zituzten. Baina "Ordiziako Luis Urteagak herriarentzako San Prudentzio martxa doinua egin zuen. Elizako martxa da, prozesioan jotzeko. Orain dela lauzpabost urte, danborradan doinu hau jotzen entzun nuen. Harrituta gelditu nintzen. Nire artean zera pentsatu nuen: gaur egun Lazkaon



Jabier Muruamendiaraz, bere etxeko musika gelan.

hainbat musikari egonda ez ote zen inor egongo martxa bat konposatzeko edo danborradarentzako musika bat egiteko? Beasainen, Ordizian, Idiazabalen... badira danborradako doinu bereziak. Azkenean neroni hasi nintzen", dio Jabierrek.

Duela bi urte sormen lanean hasi zen. "Eman eta eman

hasi nintzen, inori ezer esan gabe. Lehenengo zatia egin nuenean ez zitzaidan iruditzen hain gaizki zegoenik. Tornero lana egiten nuen eta mailuarekin aritzen doinuaren erritmoan. Jendeak txundituta begiratzen ninduen. Mailuen pausoeekin eta notekin osatu nuen Lazkaoko martxa".

Kritikoa, semea du Jabierrek. "Ezberdina" zela esan zion semeak eta "Hala behar dik", erantzun aitzak. Honela animatu eta Udaletxeko Miren Larrañagari azaldu zion egindakoa. Felix Urkola alkaterekin eta biekin bileratxo bat egin eta Lazkaoko Martxa zinta batean grabatuta eramane zion. "Gustatzen zitzaizela esan zidaten. Nik melodia bakarrik egin nuen, danborraren danbak non eta noiz jo behar ziren zehaztuz. Baina banda edo txaranga batek jotzeko, musika tresna bakoitzak bere partitura behar du. Beasaingo Jose Agustin Olano txistulariarekin hitz egin nuen eta bere bidez, Errenterriko Aitor Mitxelenak egin zidan harmonizazio lana. 13 instrumentu ezberdinekin jotzeko moduan harmonizatu zuen. Txistuarentzako ere bai".

Iazko San Prudentzio jaietan, ordea, deskoordinazio txiki bat gertatu zen: Antzar Gazteak txarangakoak Lazkaoko Martxa entsaiatzen ari-

 **mazda**
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

HAURRENTZAKO GAIK

Arba kalea, 1 **ORDIZIA**
Tel.: 943 88 15 13

**200m²-etan
aukera zabala:**

Quinny
Arrue
Bebe-confort
Red Castle
Maxi-cosi
...



tu ziren baina danborradakoak ez. Hamabost egunetan ikasterik ez zegoela eta, aurtengorako, 2002ko San Prudentzioetarako utzi zuten estrena. Apirilaren 28an, igandean, arratsaldeko 6,30etan entzun ahal izango da beraz jendaurrean, lehen aldiz, Muruamendiarazen Lazkaoko Martxa.

Abuztuan hasi zen Jabier Muruamendiaraz danborradako arduradunei doinu berria erakusten. Haurrak, berriz, otsailean hasi ziren entsaiatzen.

Martxa 'ezberdina'

Deialdi batekin hasten da Lazkaoko Martxa. Gero hasten da danborrada. Umeen-tzat pentsatuta dago eta alaia izan dadila. Bigarren zatia, kalejiran oinarritzen da. Hirugarrena, gaia seriogoa da, tonalitatea aldatuta. Berriz ere lehenengo zatiarekin segiz, deialdiarekin amaitzen da Lazkaoko Martxa.

Letrarik ez du, momentuz Lazkaoko Martxak. Jabier Muruamendiarazek besteren bati utzi nahi dio lan hori.

Txistulari eta abesbatza zuzendari

"Lazkaon beti egon da kantatzeko zaletasuna", dio Jabierrek. 1962an 'Eguzki abesbatza' sortu zuten Eukeni Lasak eta biek. "Eukeni kanpora joan zen ikastera eta ni bakarrik gelditu nintzen eta gizonezko ahotsekin bakarrik osatu genuen abesbatza. Toki askotan kantatu genuen. Ordizian, Egu-berrietako kanten txapelketa irabazi genuen". Emakumezkoak geroago sartu zituzten. 1969an, Fraga Iribarne zegoen Barne Ministrari. "Kantatu behar genuenaren le-tren itzulpena eskatzen zigu-ten, guk euskaraz kantatzen genuen-eta. Donostiako Informazio eta Turismo zentroan aurkeztu genituen itzulpenak. Giro arraroa sortu zen. Entseietan Guardia Zibila atean izaten genuen... utzi egin genuen".

27-28 urterekin txistua ikasi zuen, bere kasa. Beasaingo Txanborekin sakondu zuen geroago. Garai hartako Lazkaoko txistulariek utzi egin zuten eta Jabierrek hartu zuen ardura. Dozena bat mutiko hartu, solfeoa erakutsi zien eta hiru txistulari banda sortu ziren. 10 urtez aritu ziren. *"Pixkanaka uzten joan ziren eta berriz ere hutsetik hasi beharrean, utzi egin nuen".*



Musika barru-barruan eraman du beti Jabier Muruamendiarazek. Francisco Areso bizi zen etxean jaio zen. *"Belaunetan hartzen ninduen eta musika erakusten aritzen zitzaidan"*. Hala ere, musikan dakiena Iñaki Ormazabali zor dio Jabier Muruamendiarazek. *"Nik dakidan musika guztia berak erakutsi dit. Eskuko soinua ikasi nahi nuen eta amak esan zidan, lehenengo musika ikasi beharko nuela. Ni gustura, eta Iñakik irakatsi zidan"*. Osaba bat ere bazuen beneditarretan, Migel Altolagirre, organista handia zen eta edozein zalantza zuenean berarengana jotzen zuen Jabierrek.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

AUTO-MOTO LAGUNAK

Ibabe Industrialdea, 19

☎ 943 88 91 51

LAZKAO

- ✖ Autoen konponketa orokorrean
- ✖ Gasolina eta diesela
- ✖ Norabide zuzenketa
- ✖ Olio aldaketak, koipeztaketak
- ✖ Gurpilak, zulatuak
- ✖ Diagnosiak

ZINEA

GOIENIZ

Apirilak 23, 'Oktober', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

Apirilak 25, Begirada zikloaren barruan, 'Metropolis', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

dantzak

BEASAIN:

Apirilak 20, J. Mari Zurutuzaren omenezko jaialdia, Loinazko San Martin plazan.

hitzaldiak

LAZKAO:

Apirilak 22, 'Esaera zahar-rak', Pello Zabalaren eskutik, 19:00etan.

antzerkia

BEASAIN:

Apirilak 26, Tentazioak Produkzioak-en 'Komeri-ka' antzezlan, Usurbe Antzokian, 22:15ean.

LAZKAO:

Apirilak 23, Elena Irureta eta Aizpea Goenagaren antzezlan: 'Sketch-ak'. 21:00etan, Maizpiden.

bertsoak

LAZKAO:

Apirilak 19, Bat-bateko bertso-saioa eta antzerkia bertsoan, Goierriko bertso-eskolakoen eskutik, 14:30ean, Ikastolan.

txotxongiloak

LAZKAO:

Apirilak 24, Enkarni Genuaren 'Itsasminex' ikuski-zuna, Maizpiden, 15:00etan.

musika

BEASAIN:

Apirilak 19, Euskal Kantu txapelketako jaialdia, Usurbe antzokian, 19:00etan.

Apirilak 24, Musika Eskola antolaturiko kontzertua, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

Apirilak 26, Musika Eskola antolaturiko kontzertua, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

Apirilak 27, Makrokonzertua: 'Loquillo y trogloditas', 'Dogma de fe' eta 'Rhune', Antzizar kiroldegian, 22:30ean.

ikusentzuneakoak

BEASAIN:

Apirilak 19, '3 handiak ibilbidearen lehen zatiak', Fermin Pedrosaren eskutik, Aizkorri elkarte, 20:00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Apirilak 20-21: Cuesta (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Apirilak 27-28: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.

Maiatzak 4-5: Urbizu (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880232.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Isuses industrialdea - ARAMA
Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Ligna erakusketa, Igartza jauregia.

Apirilaren 27tik maiatzaren 5era, Txindoki-Alkartasuna Institutuko Arteen Batxiler-goko ikasleen lanak, Usurbe antzokian.

Apirilaren 21era, Jesus Zulueta lanak, Usurbe Antzokian.

LAZKAO:

Apirilaren 22ra, Dionisio Amundarain, artzantzatik komentura eta komentutik euskararen unibertsitatera, Kultur etxean.

ORDIZIA:

Apirilaren 30era, Juan Gorritiren 'Baserriko argia' eskultura erakusketa, Barrenan.

Euskal Kantu txapelketa Beasainen, apirilaren 19an, Usurbe Antzokian

Bergarako finalaren aurretik, azkeneko kanporaketa da

Euskal Kantuzaleen Elkartek antolatuta, 15 urtetik gorakoek 2002. urteko Euskal Kantu txapelketako azkeneko kanporaketa, Beasainen jokatu da, gaur bertan, apirilak 19, arratsaldeko 7etan. 16 kantarik eta taldek hartuko dute parte, kantari zein talentu berriak aurkitu eta lagundu nahirik.

Euskal kulturari, kantagintzari eta euskarari bultzada emateko helburuarekin sortu zen txapelketa, Euskal kantagintzaren alorrean kalitate teknikoa goratzea dute kantu txapelketen bidez.

Euskal errepertorio klasi-ko berreskuratzea, kantuaren tradizio herrikoia sostengatzea eta sendotzea da Euskal Kantuzaleen Elkartearen helburua. Baina era berean, euskal idazle eta konpositoreen sorrera sustatzea ere bai.



Arrate Arozena, 2000ko txapelduna.

26 talde aurkeztu dira 2002ko Gipuzkoako txapelketara. Batzuk taldeka arituko dira eta beste batzuk bakarka. Batzuk kantu zaharrak abestuko dituzte eta beste batzuk, eurek sortuak.

Aurreko bi asteetan Andoainen eta Ibarren jokatu da kanporaketetatik, 16 sailkatu dira Beasaingo saiorako. Hemendik sailkatuko dira datorren astean Bergaran jokatu den saiorako.

Gipuzkoako txapelketatik Euskal Herri mailan egingo

den agerraldira joango dira. Kasu honetan, ez du txapelketaren izaerarik izango.

Beasainen parte hartuko dutenak hauek dira. Esan beharra dago, Gipuzkoako eskualde gehienetatik aurkeztu direla kantariak baina Goierri horretan hutsunea izan du, goierritarrik ez baita aurkeztu.

Bakarlariak: Olatz Prat (Azpeitia), Ioritz Azpitarte (Zarautz), Argiñe Agirrezabal (Bergara), Ainhoa Permach (Pasai Antxo) eta Katya Martin (Orereta).

Bikoteak: Anoeta, Azpeitia-Zestoa, Pasai Antxo, Bergara eta Tolosaldeko bikoteak.

Taldeak: Usurbil, Andoain, Orereta, Bergara eta Arrateko taldeak.

Hauez gain, 2000. urtean Bizkaiko txapelketa irabazi zuen Rakel Pujana kantaria arituko da Usurbe Antzokian.



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxe: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxe: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

943 88 98 48



Etxebizitzak

salgai

➡ Etxea salgai Legorretan. 3 logela. Trasteroa. 13 milioi pezeta inguru. 943084189.

➡ Etxebizitza salgai Legazpin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Sukaldean eta komunean obra egina. 686426979. 21:00etatik aurrera deitu.

➡ Etxebizitza salgai Ormaiztegin. 2 logela, egongela, sukalde jan-tzia. Oso eguzkitsua. Bista onak. 626170647.

➡ Itsasondon etxea salgai. 3 logela, egongela, bainugela, sukalde ekipatua. Berogailua dauka. Oso eguzkitsua. Mobleztatua. Ganbara eta bi autoentzako gara-jea ere baditu. 943882111.

➡ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

➡ Etxebizitza salgai Ikaztegiatan. 127 m². Estreinu gabea. Tren geltoki ondoan. Garajearekin. 607085145. 5etatik aurrera deitu.

konpartituak

➡ Pisukide bat bilatzen da Beasainen pisua konpartitzeko. 653735094.

➡ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen du-gu. Mutil ez erretzaileak. 914095390.

errentan hartu

➡ Etxebizitza alokatu-ko nuke Beasainen. Ekonomikoa. 616730421.

errentan eman

➡ Urbasako mendile-rron etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

Pabilioiak

salgai

➡ Itsasondon Ibai-On-do industrialdean 7. pa-bilioia salgai. 212 m². Altura 9 metro. Prezio interesgarria. 652775737.

Garajeak

errentan

➡ Bi garaje alokatzen dira Jose Lasa kaleko 5. zenbakian. Lur azpiko-ak. 943885574. Iluntze-tan deitu.

salgai

➡ Zaldibian, Ostatu-buru etxean, garajea salgai. Entreplantarekin eta urarekin. 943887827.

Ibilgailuak

salgai

➡ Citroen Berlingo salgai. 5 urtekoa. 943887246.

➡ Peugeot 205 salgai. 1900 diesela. Txuria. 3 atekoa. SS-AF. 943885024.

➡ Volkswagen furgo-neta salgai. Sukalde, berogailu eta ohearekin ekipatua. 620860285.

➡ Yamaha TZR (50 c.c) motorra salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. 943885147. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Trialeko Beta moto-rra salgai. 250 cc. 225.000 pezeta - 1.352,27 euro. Ibon. 696420258 - 943889503.

➡ Honda CBR 600 motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 500.000 pezeta - 3.000 euro. 636563841.

➡ Rover 216, SS-W, salgai. Beti garajejan egona. 94.000 km. Gur-pilak, korreak eta beste zenbait atal berriak. Oso ondo zaindua. Mer-kea. 656415505.

➡ Trialeko motorra salgai: Montesa Cota 315. (99. urtekoa). 943766401 - 943731282.

➡ Kotxea salgai: Tata Safari todo terrenoa EX. Urtebete dauka. 943683552.

➡ Yamacha YZ moto-rra salgai. 80 cm³koa. Egoera onean. 943806502. Iluntzetan deitu. Joxean.

➡ Piaggio Typhoon motorra salgai. 125 cc. Urdina. 6.200 km. On-do zaindua. 943086857.

➡ Honda CBR 600 motorra salgai. 92. urte-koa. Egoera onean. 636563841.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu orduea: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA


MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Animaliak

salgai

➔ Arraza oneko Brako aleman txakurkumeak salgai. 35.000 pezetan. Juantxo. 650183935 - 943881387.

Bestelakoak

salgai

➔ Sutarako haritz egurra salgai. 2 metrora moztua. Merke. 676882842.

➔ Esolatarako gaztaina txertakak saltzen dira. Merke. 676882842.

➔ Idazteko bi makina salgai, Olivetti Estudio 46 eskuzkoa eta Panasonic R194 elektrikoa. Biak egoera onean eta prezio interesgarrian. 943806176. 21:00etatik aurrera deitu.

➔ 7 oktabadun Furs-tein etxeko pianoa salgai. Neurriak: 1380 x 500 x 1030 mm. 943086610.

➔ Ordenagailuan ikus- teko pelikulak (div-x formatoan), The Simpsons-eko 248 kapitulu (12 cd), programak, musika cd-ak eta Dreamcast-erako jokoak saltzen ditut oso prezio onean, (2,1 euro/cd). Seriotasuna. 658751318.

➔ Beretta A304 Silver Lark eskopeta salgai. Gutxi erabilia. Ibon. 696420258 - 943889503.

➔ Errepideko txirrin- dua salgai. 51 neurri-koa. Manetekin. Ondo zaindua. 50.000 pezeta / 300 euro. 943882955 (13:00etatik 15:00etara edo 21:00etatik aurrera deitu).

➔ Sutarako egurra sal- gai, 2 metrotan moztu- ta. 943880905.

Lana

eskaerak

➔ Gizonezko bat be- har da Goierrialdeko

okindegian batean lan egi- teko. 652734213. Me- zua utzi mesedez.

➔ Neska euskalduna behar da Seguran okin- degian lan egiteko. 943801820. Arratsalde- ko 5,30etatik 8etara dei- tu.

➔ Beasainen neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943880845.

➔ Neska euskalduna behar da zerbitzari lane- rako. 943655848.

➔ Pertsona euskaldu- na behar da tabernan astebukaeran lan egite- ko. 943160205 - 943886577.

eskaintzak

➔ 18 urteko mutil ba- tek lana egin nahi du ta- bernan, astebukaeretan. Iluntzean deitu. 943881881.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da astean ze- har egunean pare bat ordu, garbiketa edo an- tzeko lanak egiteko. 619601111.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

INFORMATIKA GELAKO BEGIRALE-TUTOREA

Goierri. Erref. 74849/5

2. OFIZIAL ELEKTRIZISTA

Goierri. Erref. 75823/1

MEKANIKO AJUSTATZAILEA

Tolosan. Erref. 76042/1

TRAILER GIDARIA

Tolosaldean. Erref. 74107/4

JOSTEKO MAKINAKO 2 LANGILE

Tolosan. Erref. 74920/1

INFORMATIKA IRAKASLEA

Tolosaldean. Erref. 74997/2

ZERBITZARI LAGUNTZAILEA

Tolosaldean. Erref. 75458/3

EUSKALTELENTZAT 2 ASESOR KOMERTZIAL

Tolosaldean. Erref. 75461/3



GENERALI Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN



Goierriko
Akademia
integrala

Interneten: Kontsultatu irakasleri
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
http://usuarios.tripod.es/ikastek

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen Hezkuntza
- * DBH, DBHO, Modulook
- * Zikloak

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- * Marrozketa
- * Matematika
- * Fisika
- * Teknologia

IKASKETA ARAZOAK


- * Errendimendua
- * Ohiturak, metodoak
- * Atentzioa
- * Emozioen kontrola

UNIBERTSITATE MAILA

- * Enpresaritza
- * Kontabilitatea, kalkulua
- * Fakturazioa, estatistika
- * Matematika (finantziera...)



Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68


ORDIZIA



Lazkaoko Antzar Gazteak txaranga, 1988 inguruan

Zutik, ezkerretik eskuinera: Urko Irastorza, Jon Lasa, Milagros Martinez, Maria Elena Velter, Ainhoa Mendia, Marian Rodriguez eta Miren Lasa.

Makurtuta: Unai Intxausti, Egoitz Bergara, Unai Arruabarrena, Asier Intxausti, Iñaki Ramirez eta Oier goñi.



Madalena, 2 Tfnoa.: 943 88 19 95 LAZKAO

HORNITEGI

LANABES ETA
HORNIGAIK

SUKALDE TRESNERIA

M. ARTOLA
MODELOAK

*Fundiziorako modelo eta
plaken tailerra.*

Zubi Erreka, z/g

943 88 79 30 LAZKAO



*Arrautza
jarriberri
ezin hobeak*

943 16 09 71 Elsegui, 25
LAZKAO

Ixiar

GOZOTEGIA
OKINDEGIA

Festak ondo pasa!

Hirigoien 20
Tel.: 943 88 11 54
LAZKAO



GARAIZ

jantziak
Jai zoriontsuak denoi!

Hirigoien, 8-10
Tel.: 943 880 840
LAZKAO

KEMEN ZENTRUan osasuna zaintzeaz gain, zure kirol errendimendua hobetzen dugu.

San Prudentzio
jai zoiontsuak
denoi

Mediku azterketak eta
esfortzu frogak

Argaltze dietak,
kirol dietak
eta aholkuak

Entrenamendu egokituak

Masajeak eta
manipulazioak



Kemen
kirol osasun zerbitzuak

Elozegi, 14 - 1. ezk
LAZKAO

Tel.: 943 16 22 26
Faxa: 943 16 22 27

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN S.L.

Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



GOIERRI LANBIDE ESKOLA

bulegoa@goierrieskola.org
www.goierrieskola.org

24 Posta Kutxa
☎ 943 88 00 62 / 66
Faxa: 943 88 83 51
ORDIZIA



2002/2003 IKASTURTERAKO ESKAINZA

IZEN EMATEA:

BATXILERGOA: maiatzaren 2tik 10era
LANBIDE HEZIKETA: ekainaren 3tik 12ra
Ikastetxeko bulegoetan goiz eta arratsaldez


ZATOZ BATXILERRETIK

BATXILERGOAK

- **BATXILER TEKNOLOGIKOA**
 - × INGENIARITZA ETA UNIBERTSITATERA BIDERATUA
 - × GOI ZIKLOETARA BIDERATUA

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- **MEKANIZATUA**
- **ERAIKUNTZA METALIKOAK**
 - × GALDARAGINTZA
 - × SOLDAKETA



GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- **ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK**
- **PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA**
- **MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA**
- **ERAIKUNTZA METALIKOAK**
- **INDUSTRIA EKIPOEN MANTENIMENDUA**
- **ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK**
- **TELEKOMUNIKAZIOAK**

INGENIARITZA BARNE



GUZTI HAU 'GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN, BAILARAKO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESKURA IZANGO DIRA:
GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOLTSA (Gaurkoz enpleagarritasuna % 100)

